



2001ean zorigaiztoko istripu batek ezker hanka ezgaitu zion Rakel Mateori, ordutik kirola hartu zuen lagun. Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

infraganti

RAKEL MATEO

2001. urtean lanean ari zela 100 kiloko karga erorita ezker hanka ezgaitua geratu zitzaion Rakel Mateori. Halere, 2010ean bizikleta batera igotzea erabaki zuen, nahiz eta ordura arte kirolarekin apenas izan loturarik. Eskuin hankarekin lehen pedalkada haiek eman zituenetik hesiak eraitsiz joan da apurka-apurka, eta, orain, paratriathloian goi-mailan diharduela, Rio de Janeiroko Joko Olimpikoak ditu begiz jota.

Bizitzak etengabe jarri du ataka zailen aurrean Rakel Mateo (Mungia, 1975), baina adore, kemen eta esfortzu handiarekin ataka horiek guztiak gainditzea lortu du. 12 urterekin anorexia diagnostikatu zioten eta 10 urte luzez paira-

tu behar izan zuen gaixotasun hori. Etapa hartan oso momentu gogor eta zailak bizitu zituen: «Hasieran ez zara jabetzen gertatzen zaizunaz eta asko kostatzen da egoera onartzea. Dena dela, pauso hori ematea ezinbestekoa da gaitzari konponbidea jartzeko. Behin hori eginda, nire kasuan behintzat, okerrera

familia eta nire inguruko jendea sufritzen ikustea izan zen». Zorionez, familiaren babesarekin, medikuen laguntzarekin eta lan handiarekin gaixotasuna gainditzea lortu zuen, eta bizimodu berri bati ekiteko aukera izan zuen. Haatik, zoria ez zuen lagun izan eta bere bizitzan lehen eguzki printzak agertu orduko,

ekaitza gailendu zen oster. Izan ere, 2001ean zorigaiztoko istripu batek ezker hanka ezgaitu zion Mateori. Lanean ari zela 100 kiloko karga erori zitzaion gainera eta hasieran hankaren mugikortasuna berreskuratzeko esperantza bazuen arren, hara eta hona mediku batetik bestera ibili ostean, aurreikuspenik ezkorrenak baieztatu ziren azkenean. «Bizitza erabat aldatu zitzaidan. Ni oso neska mugitua nintzen eta bat-batean erabat mugatuta geratu nintzen. Buaruari buelta asko eman nizkion eta behin eta berriro galdetzen nuen ea zergatik tokatu zitzaidan niri halakorik» kontatu du.

Pixkanaka baina errealitatea onartu eta aurrera egitea lortu zuen. Horretarako, kirolean topatu zuen ihesbide nagusia. Izan ere, istripua izan zuenetik gertuko lekuetara oinez mantso-mantso joateko gai zen arren, urrunago zeuden lekuetara joateko kotxean eraman behar izaten zuten ezinbestean. Gauzak horrela, egoera horrekin apurtzeko helburuz, bizikleta gainera igot-

tzea erabaki zuen. Hala, bere anaiaren bizikleta zaharra denda batera eraman eta ezker hankako pedala kentzeko eta bere hanka ezinduarentzat euskarri bat jartzeko eskatu zuen. Halere, lehen pedalkada haiek ez ziren oso gozoak izan: «Hasieran dena puskatzen nuen eta nire gorputzeko giharrek asko sufritzen zuten». Pixkanaka, ordea, bizikletari egokitzapenak eginda gero eta erosoago sentitzen hasi zen bi gurpilen gainean. «Gogoan dut bizikletarekin herritik haratago joan nintzen lehenengo eguna. Tontakeria bat dirudi baina bizikletan ibiltzen nindoan bitartean txoriak kantari entzutea ikaragarria izan zen niretzat. Kotxez eramaten nindutenean ezin nituen gauza horiek sentitu eta txikikeria hark sorturiko ilusioak aurrera jarraitzeko indarra eman zidan», azaldu du.

EZUSTEAN LEHIARA

Bizikletaren gainera igotzea erabaki zuenean, uneoro besteen mende egon gabe bere kabuz moldatzen hastea besterik ez zuen buruan. Halaber, pauso hori emanda sortu zitzaion bestelako kezkarik. Izan ere, eskuin hankarekin soilik ibiltzen zenez, ez zen erabat seguru sentitzen, eta arduratu egiten zuen bere erruz istripuren bat sortzeak, eta, badaezpada, bizikletan ibiltzeko lizentzien eta seguruen gaineko informazioa eskuratzeko erabakia hartu zuen. Galdezka hasita, konturatu zen Bizkaian kirol egokitua praktikatzen zutenentzat laguntzak zeudela eta Saiatuz fundazioarekin harremanetan jarri zen. Fundazioko kideek ikusi zuten bizikletan hanka barrarekin ibiliagatik oso ondo moldatzen zela, eta lehiaketa batean parte hartzeko proposamena luzatu zioten: «Hiru etapako proba bat zen eta ezinezkoa ikusten nuen hura amaitzea. Halere, erronkazalea naizenez baiezkoa eman nuen eta nire ezustekorako dena egiteko kapaz izan nintzen». Egun hartan erakutsitako gaitasuna mugarri izan zen eta orduanik aurrerapausoak emanaz eta gero eta erronka zailagoak gaindituz joan da Mateo. Txi-

DATORRENA

Urte berrian ezer ez itxaron,
urte berriari bultza! **IRATXE URIZAR > 3**

ACABE GIPUZKOA: Hogei urte
elikadura nahasmenduak
dituzten pertsonei laguntzen **> 12**

2015eko urtarrilaren 3a | VIII. urtea • 398. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



LARA ARRUABARRENA, TENISAREN PUNTAN

TOLOSARRA DA, 22 URTE DITU ETA MUNDUKO TENISLARI ONENEN ZERRENDAN SARTZEA LORTU DU. 15 URTE
ZITUELA AMETS MODURA ABIATUTAKO BIDEA ERABAT GORANZKOA IZAN DA. **> 28** Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

«Nikolas Txikia» ez da iruzurgileen
artean aurrenekoa izan **04**

ACABE Gipuzkoa, hogeitau urte
elikadura nahasmenduak
dituztenei laguntza ematen **12**

Ikusmira: Pankartan hoztutako
eskuak **16**

Analisia: Funtsezko drama
pertsonala **18**

E.lkarrizketa: Marikita Tambourin,
idazlea eta irakaslea **22**

Transgenikorik ez,
eskerrik asko **26**

In Fraganti: Lara Arruabarrena,
puntako tenislaria **28**



SINADURAK:

- 03 Iratxe Urizar:** Urte berrian ezer ez itxaron, urte berriari bultza!
10 Unai Fernandez de Betoño: Sarraskijaleak gainean
11 Ramon Sola: Komunikazioa ala porrota
15 Maider Iantzi Goienetxe: Dumitru
20 Gorka Zozia: Etorkizunera itzulera
21 Laura Mintegi: Errelatoaz
25 Amaia Ballesteros
27 Amagoia Mujika: Euskara paparrean
30 Xabier Mikel Errekondo: Ezberdinak/berdinak gattunk?
31 Iratxe Esnaola: Teknologia eta kontsumismoa



{ datorrena } Iratxe Urizar

Urte berrian ezer ez itxaron, urte berriari bultza!

Euskal Herrian, ematen du denok garela politikan aditu. Ez pentsa, ez, ironikoa izaten ari naizenik, benetan ari naiz. «Nongoa zara?» galderari zure erantzuna «Euskal Herrikoa» bada, akabo. «Zergatik? Kontatu pixka bat nondik zatozten, nondik datorren zuen hizkuntza, noiztik zaudeten gatazkan, eta, bide batez... zer-nolako gizartea nahiko zenukete zuen herria independentea balitz?». Galdera piloa egingen dizkizute zuzenean, eta, gainera, horiei guztiei modu ordenatuan eta argumentu sendo eta objektiboekin erantzuteko gaitasuna izango duzula espero da, izan unibertsi-tateko irakasle edo okina. Izugarria da. Politikan aditu bihurtu gaitu etengabe azalpenak ematen ibili behar horrek, eta prentsan azaltzen direnak interpretatzeko begi zorrotzeko kritiko ere bai.

Azkenaldian, gehiegi ulertzen ez diren eta euskal presoengan eragina izan dezaketen berriak agertu dira prentsan. Gure etxean iskanbilatxoa sortzeko gaitasuna duten horietako bat ere jaso dugu, eta ez da gutxiagorako: Gobernu espainiarra aztoratuta omen dabil preso batzuk beraien kondena beteta libre aterako direlako (hara!) eta berriz ere lege berriak egin edota daudenak aldatu edo berrinterpretatzeko saiakera egingo duela aldarrikatu du lau haizetara. Hala, nahiz eta beraien zigor kodeetan jasota ez egon, hainbeste maite duten biziarteko kartzela zigorra egikaritu nahi dute.

Europatik etorritako erabaki marko bat da zalapartaren arrazoiak, 2008an adostu zena eta estatu kideek bere egiteko betebeharra zutena data horretatik aurrera; hau sorpresa, beste behin ere Espainiako Gobernuak gustuko ez duen nazioarteko erabaki baten aurrean existituko ez balitz bezala jokatu du! Eta ez da erabaki aurrerakoa, ezta gutxiago ere. Azken finean, Europa bera espetxe esparru bakar moduan ulertzeko norabidean egindako lege aldaketa da. Horren aurrekina euroagindua dugu, jada askoz ezagunagoa gure artean. Horren arabera, Europako esparruan ez da estradizio epaiketarik aurreikusten. Izan ere, Europa bezalako lurralde “demokratiko” batean, ez dago zertan aztertu auzi bateko elementu guztiak zuzenak diren edo ez: denok gara hemen lagunak eta elkar laguntzeko gaude (estatuei buruz ari naiz, noski), eta, hortaz, zuetako batek pertsona bat eskatzen badit, ez dut buelta handirik eman beharrik justiziaren izene-

an, eta, hala, denbora-tarte errekor batean bidaliko dizut. Epailleek ez dute zeresan handirik hemen (ez da nire asmoa epaileen alde agertzea, baina egia da erabakitze gaitasun txikia dutela). Bada, hemen ere, erabaki marko honen bitartez, beste pauso bat ematen da: ez dugu jada esparru politzial, judizial edo penal bakarria izango soilik, orain esparru penitentziario bakarria ere izango dugu.

Hala ere, *a priori* gauza positiboa ez dela ematen badu ere, nazioartetik gurera datorren ia dena bezala, etxean duguna baino hobea izan daiteke. Zergatik? Akordio honek, izenburuak berak esaten duen moduan, prozesu penal berri baten atarian ezartzen du estatu kideen artean ematen diren kondenazko erabakiak nola ulertu. Akordioak kondena esparru bakar gisa ulertzen du Europa, horrek suposa ditzakeen gauza txar (badakigu kondena betetzeko orduan baldintzak ez direla berak estatu guztietan) eta onekin. Hor dator arazoa: interpretazioa presoaren aldekoa izan daitekeenean, Madrileko agintariek zuzenbidearen kontrako *in dubio contra reo* (zalantza kasuetan beti presoaren kontra) printzipioa aplikatzen dute beste behin ere euskal preso kasuan; pentsa, espainiar epailleek beraiek ere egin dituzte jada agintarien asmoen kontrako adierazpenak! Agintariek, baina, argi diote: asmatuko dute zerbait beraien sistemak ere askatu nahi dituen gure presoak ez askatzeko.

Espero dezagun kanpoko epaitegietara heldu behar ez izatea; hori bai, joan behar bada, joango gara, behin eta mila aldiz. Hala ere, ematen du oraingoan epaitegietara jo aurretik ere kanpoko instituzio eta elkarteak kontrol zorrotzagoa burutzen ari direla gehiegikerion aurrean. Atzerriko egunkari batean, adibidez, honako titularrak irakurri dugu asteon “Mozal Legea” bezala ezagututakoaren harira: «Faxismoa bueltan da Espainian». “Beroan egindako itzultzeak” direla eta, Europako komisarioaren (beste batzuen artean) kritika gogorak ere entzun behar izan ditu Espainiak...

Mugitzen ez denak berdin-berdin segitzen du, baina guk bultzaka jarraituko dugu. Oraingoan, erabakia atzeratu dute eta urte berriak esango digu presoan auziarekin zer gertatzen den. Aurtengo kanpaiekin oraingoan eta berriro ere, gure desiorik sakonena, zuek laster hemen izatea. Bultzaka jarraituko dugu, ziur egon. Gehiegi maite eta behar zaituztegunako. •

Espainiak gustuko ez duen nazioarteko erabaki baten aurrean existituko ez balu bezala jokatu du beste behin

«NIKOLAS TXIKIZ» LEPO

Fikzio eta errealitate kontrajarriak eraikitzea joera naturala ote dugu?

📁 JENDARTEA / Mikel ZUBIMENDI BERAŠTEGI

Egunotan asko hitz egin da *Nikolas Txikia* bezala ezagututako gazte madrildarraz. Usteltzen ari den boterearen ingurura euliak bezala inguratzen den pertsonaia horietako bat da. Francisco Nicolas Gomez Iglesias bere amaren eskutik iritsi zen PP alderdira 14 urterekin, eta, orduz geroztik, sinesgaitzak diruditen istorioak asmatuz bide harrigarria egin du. Komertziorako estatu idazkaria zuela aitaponteko, Juan Carlos errege ohiaren seme ez-legitimoa zela, CNI Espainiako zerbitzu sekretuetako agentea zela, Espainiako presidenteorde Soraya Saenz de Santamariaren aholkularia... kontua da maila politiko oso altuetan mugitu dela azken urteotan. Maila batean, bere ibilerek demostratzen dute Espainian dagoen arazo handienetariko bat horixe bera dela: mailarik eza. Baina hori baino gehiago ere badago, bai.

Nikolas Txikia ez da, baina, iruzurgileen artean aurrenekoa, eta ez da azkenengoa izango ere. Influentzia handiko pertsonen ingurura batzen dena influentzia handikoa dela pentsatu ohi da. Eta antza, antzeztoki egokia, janzkera eta parafernalia egokia erabiliz gero, ez omen da horren zaila jendea engainatzea. Horren adibide lepo daude historia hurbilean nola aspaldikoan.

Egoera bat egoki erre kreatuz gero, gakoak diren elementuetan enfasi berezia jarritz gero, ez dirudi hain zaila denik gainontzeak engainatzea.

Iruzurgileen jokabide hori nortasunaren nahasmendu bat ote da? Ikuspegi kliniko batetik aztertu beharrekoa? Megalomania, nartzisismoa, handikeriaren delirioa, gain hartzen duen arrakasta baten fantasia... hori

Auto ofizialak, bizkartzainak, luxuzko txaletak, errepresentazio gastu izugarriak, boteredunekin egindako argazki eta «selfie» bilduma ederra... izan dira «Nikolas Txikiaren» aurkezpen txartelak.

Dani POZO / AFP

guzti hori badago, bai. Baina publiko zabalaren aurrean beren autoengainua ederki saldu duten horiek ez al dute haragitzen pertsona orok fikzio eta errealtate kontrajarriak eraikitze duen beharra? Ez al dituzte denon konformismoa eta gezurrak azaleratzen? Edo beste hitz batzuekin esanda, ez al dugu denok ez garen beste norbait garelako, noiz edo noiz, inoiz amestu?

Egia da, bestalde, auto ofizialak, bizkartzainak, luxuzko txaletak eta errepresentazio gastu izugarriak zituela Francisco Nicolas Gomezek, boteredunekin egindako argazki eta *selfie* bilduma ederra osatu duela urteotan. Pertsonalitate horiek guztiek orain bizkarra eman badiote ere, egia da, halaber, bere ibilerak oso sinesgarriak direla eta dekadentzian dagoen boterea oso ongi irudikatzen duela. Bere kasua auzitegiaren dago uneotan, eta, okerrik gabe, errazagoa izango da *Nikolas Txikia* preso ikustea Cristina Borbon edo Rodrigo Rato diru publikoaren lapurrak baino.

Kontuak kontu, baina, Errege Etxea engainatzeraino iritsi den gaztearen soslai psikologiko bera duten iruzurgile andana egoera da historian zehar. Lerrootara horietako batzuk ekarri nahi ditugu, besteak beste, gure bizitzaren fabulazioa gure-gurea den prozesu psikologikoaren parte ote den hausnartzeko.

TANIA HEADEN KASUA

Tania Headek zioen 2001eko irailaren 11ko erasoetatik bizirik atera zenetariko bat zela. Bere hitzen arabera, tragedia hura gertatu zenean New Yorkeko World Trade Centerreko hegoaldeko dorreko 78. solairuan zegoen eta soinekoa erretzen zion sugarrak itzali zituen gizon bati esker salbatu omen zuen bizitza. Bere kontakizunari detaile hunkigarrienak eransten zizkion, hala nola, hilzorian zegoen gizon batek eman ziola bere eraztuna Taniak emazteari eman ziezaion, edota nola lortu zuen berak bakarrik 18 pertsona salbatzea. Atentatuko bizipenak hobekien kontatzen zituena bera zen, eta, agian horregatik, World Trade Centerretik bizirik





Influentzia handiko pertsonen ingurura batzen denak influentzia handia duela pentsatu ohi da, beraietako beste bat dela uste dute gainontzekoek, benetako «arrain handi» bat

Megalomania, nartzisismoa, handikeria, delirioa, gain hartzen duen arrakasta baten fantasia... hori badago, bai. Baina autoengainua sinestea eta saltzea hori baino askoz gehiago da

atera ziren biktimen sareko presidente ere hautatu zuten.

Baina Tania Headek kontatutako ezer ez zen egia; irailaren 11n ez zen World Trade Centerreko eraikinean egon. Pentsa, AEBetan bertan ere ez zegoen egun horretan! Gerora jakin zenez, Tania Head Bartzelonakoa zen eta bere benetako izena Alicia Esteve Head zen. 2007. urtean, dorre biki- kien erasoak gertatu eta sei urtera atera zen argitara iruzurra.

Nahiko argi dago berea kasu patologikoa izan zela eta bere bizitza propioa fabulatu zuela Estevek. Patologikoa, bai, baina batek jakin gure prozesu psikologikoen gehiegikerien isla ere ba ote den, batik bat gure bizitzekin denok fabulatzen dugula baleko legetzat hartzen badugu.

Beste bartzelonar baten historiak badu Alicia Esteverenarekin antzekotasunik. 1921ean jaiotako Enric Marcok hiru hamarkada luzez engainatu zuen jendea nazien deportazio esparruetan izan zela esanez. Are, bizirik aterako errepublikanoen elkarterako lehendakaria ere izan zen hiru urtez. Makina bat hitzaldi eman zituen, domina eta aitoren ugari jaso zituen eta askoren gogoan iltzatuta dago nola Madrilgo Gorteetan diputatuak negar malkoetan utzi zituen deportatutako errepublikanoei egin zitzairen lehen omenaldian eman zuen hitzaldiarekin.

2005eko maiatzetan, baina, jakin zen iruzurgile hutsa besterik ez zela izan. Naziak ez zuten sekula deportatu; pentsa, errepublikaren aldeko milizianoa ere ez zen izan.

Goian, Thamsanga Jantjie, Mandelaren hileta elizkizunean keinu hizkuntzako interprete gisa aritu zena hizkuntza bera jakin gabe. Behean, Alicia Estevez, irailaren 11ko erasoetatik bizirik atera zela esan eta biktimen sareko presidente izatera iritsi zen bartzelonarra.

GAUR8

Segur aski hor datza iruzurgilearen benetako egoa: beste norbait izatean. Harentzako nortasun arrotza hartzea norberarena aurkitzeko bidea da. Agian, bide bakarra. Eta, horregatik, beste pertsonaia bat haragitzean soilik izan daiteke zoriontsu. Hori lortzean, egiazko gizaki bilakatzen delako. Horregatik, agian, ez dago egia benetakoagorik iruzurgile baten gezurra baino.

MANDELAREN HILETAKO INTERPRETEA

Thamsanga Jantjieren kasua ere mundu osoan egin zen ezagun.

Baita sare sozialetan txantxarako gai unibertsal bilakatu ere. 2013ko abenduan heldu zen bere gloriaren –edo tragediaren– momentu gorena. Nelson Mandelaren hileta elizkizunetan, Soccer City estadioan, AEBetako presidente Barack Obamaren eta Mandelaren biloben diskurtsoak keinu hizkuntzan “eman” zituen. Besoak nahieran, ez hanka ez buru, astintzen zituen, eta bere keinuek ez zuten inolako zentzurik. Azkenean, erietxe psikiatriko batean ingresatu zuten, eskizofrenia atake bat sufritu zuela argu-

diatuta. Jantjieren arabera, ekitaldiaren garrantzian eta egun hartan sentitu zituen zoriontasun eta emozioetan aurkitu behar da bere jokaeraren arrazoia.

Zientziaren mundua ere iruzurgile ezagunez lepo dago. Entzutetsua oso izan zen Hego Koreako Hwang Woo-Suk zientzialariaren kasua. Nobel saria irabaztea obsesio zuen eta, hartara, zelula amen inguruko ikerketa bat faltsifikatzera heldu zen. 2004an mundu mailan ezagun egin zen, bere taldeak giza enbrioi bat klonatu zuela lau haizetara zabaltzean. Prentsan sarritan azaltzen zen AEBetako presidente George Bushen zelula amekin ikertzeari jarritako betoa salatzeke. Milioika pertsonengan esperantza handia sortu zuen, endekape-nezko gaixotasunak (parkinsona, diabetesa...) sendatzeko leiho bat ikusi zutelako.

Baina 2005eko abenduan frogatu zen “Science” aldizkarian zelula amen inguruko bi artikululu datu faltsuekin osatu zituela. Eskandalu handia eragin zuen aurkikuntzak, bai mundu mailako komunitate zientifikoan bai iritzi publikoan ere. 2005ean Seulgo unibertsitatean irakasle gisa jarduteko plaza kendu egin zioten, eta, lege bioetikoen urraketa egotzita, bi urteko kartzelaldira zigortu zuten.

Musika munduan ere iruzurgileen aztarna sakona eta aspaldikoa da. Segur aski, iruzurgileen artean, denetan kasurik sonatuena Milli Vanilli pop musika bikotearena izango da. Hau da, 1980ko hamarkadaren er-





dialdean Fab Morvan eta Rob Pilatusek Alemanian osatutako bikote musikalaria.

1988an bikotearen fama mundu mailan hedatzen joan zen eta 1990ean Artista Berri Onenaren Grammy saria irabazi zuten. Iruzur susmoak, baina, berehala hedatu ziren. Nola zen posible aleman eta frantses batek hain ongi kantatzea ingelesez, gero, prentsaurrekoetan, ingelesez hitz egiterakoan sekulako arazoak bazituzten?

Urte berean, MTV katea bikotearen zuzeneko emanaldi bat ematen ari zela, "Girl You Know It's True" abestiaren grabazioa ataskatu eta saltatzen hasi zen, pop musikaren historian gertatutako momentu lotsagarrienari bide emanez. Orduan jakin zen egia: Milli Vanilliren soina eta kanta Frank Fariarek ustez hain komertzialak ez ziren beste kantari batzuen talentu bokalak erabiliz sorturikoak ziren. Morvan eta Pilatusek beraien diskoetan ez zuten kantatzen.

Iruzuraren aurkikuntzaren ondoren, Grammy saria kendu zioten bikoteari. Horrez gain, Pilatus, Morvan eta beren diskotxe Arista Records etxeak 26 auzi judizial egin behar izan zieten aurre. Diotenez, beren iruzurra deskubritzeak eragin zien minagatik, biak erori ziren heroinaren atzaparretan; Rob Pilatus gaindosi batengatik hil zen 1998an.

Zinemara ere eraman dira iruzurgile sonatuen istorioak, Leonardo di Capriok "Catch Me If You Can" (Harrapa nazak ahal baduk) pelikulan interpretatu zuen Frank Abagnalerena adibidez. Azken hori, jatorri umilekoa izanagatik, 19 urte bete baino lehen egin zen aberats hegazkin pilotuen, medikuen edota abokatuen nortasunak lapurtuz.

Tony Curtisek "The Great Impostor" (Iruzurgile handia) pelikulan interpretaturiko Ferdinand Demararen kasua ere hor dago. 1921ean jaio eta 1982an hil zen Demara. Bere bizitzan zehar, ezagutu eta baieztatu denerraino, ingeniaria, diputatua, espetxezaina, medikua, abokatua, umezaina, monje beneditarra, editorea eta onkologoa izan zen.

Eta nola lortu zuen? Nola izan sinesgarri hainbeste jende ezberdin bezala aurkeztuta? Bada, suizidioak asmatuz. Aurreko pertsonaiak bere buruaz beste egin zuela erabaki eta beste pertsonaia batekin berriz ere hasiz. Demarak ez zuen, gainera, aberasteko modu bezala ulertzen bere jokabidea; bere izatea halakoa zen eta erabat sinetsita oratzen zen asmatutako pertsonaia baikoitzera, gogo-bihotz.

EIFFEL DORREA SALTZERAINO

Victor Lustig inoizko iruzurti handiena bezala kontsideratuta dago eta bere izena Eiffel dorrea saltzea lortu zuen gizonarena bezala pasatu da historiara.

1925ean Gobernu frantsesaren goi kargudun bezala aurkeztu zen Lustig. Prentsan irakurri zuen Frantziak bere sinboloa mantentzeko finantza arazoak zituela eta ongi aprobetxatu zuen aukera: industria metalurgikoko sei komertzialekin jarri zen berehala harremanetan. Bere kargu faltsuaz baliatuz, enpresaburu horietako bat engainatzea lortu eta Eiffel dorrea hari saltzea lortu zuen. Negozio borobil hura eginda, trena hartu eta Vienara jo zuen, iruzur egin zion enpresaburuari engainua salatzea lotsa ematen ziola aprobetxatuz. Gastuetan erreparatu gabe, errege baten pare bizi izan zen.

Lustigek, gerora, Al Capone berarekin liluratzeko lortu zuen. Burtsan 40.000 dolar inbertitzeko konbentzitu zuen. Kutxa gogor batean sartu zuen dirua eta operazioa fidagarria iruditzen ez zitzaioala argudiatuta, Al Capone-ri bueltatu zion dirua. Honek, Lustigen zuzentasunarekin ha-

«Nire traje onena jantzi, metroan Eliseoraino joan eta Armeniako presidentearen ondoan jarri nintzen. Behin bertan, inork ez dizu galdetzen nor zaren, beste 'arrai handi' bat zara»

Historiako iruzurgile handienetakoa den Victor Lustigek enpresaburu metalurgiko bati Eiffel dorrea saltzea lortu zuen, Frantziako Gobernuko goi kargudun bat zela sinestaraziz



Fab Morvan eta Rob Pilatusek osatu zuten Milli Vanilli bikotea -ezkerreko irudian-, pop musikaren iruzur handienetakoa protagonista izan zena. Alboan, Enric Marco. Kataluniar horrek hiru hamarkada luzez engainatu zuen jendea nazien deportazio esparruetan izan zela esanez.

GAUR8

rrituta, mila dolarrekin saritu zuen eta betiko laguntasuna hitz eman zion. Horixe zen Lustigen plana. Gerora, baina, bere iruzurrrak deskubritu ziren eta Alcatraz uharteko kartzela entzute-tsuari bukatu zuen.

Estatu frantsesean oso sonatua da ere Claude Khazizian erretirodunaren istorioa. Armairutik zuen traje eta gorbata dotoreena atera eta Nazio Batuen Erakundean Armeniako enbaxadorea zela esanez konferentzia eta goi mailako harrera ekitaldi askotan sartzea lortu zuen. Arraiak uretan nola, hala mugitzen zen goi mailako giro haietan. Bigarren Mundu Gerraren amaieraren 50. urteurrena zela eta Parisen egin zen estatuburuaren argazki ofizialean ikus daiteke Khazizian. «Nire traje onena jantzi, metroan Eliseoraino gerturatu eta Armeniako presidentearen ondoan jarri nintzen. Behin bertan, inork ez dizu galdetzen zein zaren, denek uste dute 'arrai handi' bat zarela». Eta hala zen. Nazioarteko goi mailako ekitaldi askotan ikusten zutenek, estatuburuak «beraietako beste bat» zela sinestera iritsi ziren.

ROCKEFELLER DINASTIA

Christian Karl Gerhartsreiter 53 urteko alemaniarren kasua ere sonatua da. 1970eko hamarkadatik bizi izan da AEBetan, zergarik sekula ordaintzeko, goitizenez goititzen, aristokrata ingeles edo Hollywoodeko produktore gisa bere burua aurkeztuz. Hamabi urtez Rockefeller dinastia industrialeko oinordeko bezala aurkeztu zuen bere burua, Clark Rockefeller bezala hain zuzen. Eta izen horrekin ezkontzea eta izen-abizen

Komunikabideetan «otso islamistatzat» jo zuten, Estatu Islamikoko jarraitzailetzat, baina Man Haron Monisena kausa baten aldekoa baino burutik egindako pertsona baten ekintza izan zen

Iruzurgile nartzisistak sortzen duten erakargarritasunaren jakitun dira eta majo esplotatzen dute; «miresmen aureola» hori oso baliagarria zaie nortasun faltsuak eraikitze

horiekin ezkontza paperetan erregistratzea lortu zuen.

Gerora, bere ibileren berri zehatz eta ilunagoak jakin ziren. Bere iruzurra ezagutzera eman zenean, emaztearekin banandu egin zen eta Rockefeller abizena eman zion 7 urteko alaba bahitzea ere leporatu zioten. Orain urtebete, Kaliforniako epaitegi batean bi hamarkada lehenago bizi izan zen etxe bateko jabea eta haren emaztea hiltzeagatik zigortu zuten.

Nabarmentzekoa den beste kasu bat AEBetatik Europara etorri zen turista batekin gertaturikoa da. Haren izena ez dakigu, baina bai Madrilan azaldu zela 80ko hamarkadaren bukaeran. Guapo a zela aprobetxatuz eta Rob Lowe aktorearen antz handia zuelako matraka sartzen ziotela ikusirik, bere buruari «zergatik ez?» esan zion. Hala, Michael Lowe izena hartu zuen, Rob Loweren anaia bezala aurkeztuz.

Turista hura Madrilgo goi mailako pertsonaia ugarirekin harremanak ehuntzen hasi zen eta luxuz beteriko bizitza eraman zuen. Rocio Jurado abeslariaren alaba Rociitorekin erromantze bat izan zuen, eta, antza, ezkontzeko planak ere eginak zizuten. Aitana Sanchez-Gijon aktoreak salbatu zuen, bere malkillatzaile batek ezagutzen omen zuelako Rob Lowe aktore estatubatuarra, eta honek, anaia bakarra zuelako, Chad izena zuena eta sekula Madrilan bizi gabea zena.

BURUZAGI XIITA FALTSUA

Denboran atzera urrutira joan gabe ere aurki daiteke beste era batean jokatu baina iruzu-

rra erraietaraino sartuta zuen Man Haron Monisen kasua. Iragan urteko abenduan Australiako Sydney hiriko erdialdeko kafetegi batean bezeroak bahitu zituen munduaren aurrean “terrorismoaren” olatuaren beste kapitulu bat antzez-tuz: “Otso bakarti islamista” zen, Estatu Islamikoaren jarraitzaile sutsua eta Sidney hiria jomugan zuen.

Komunikabide gehienek on-tzat eman zuten eraso islamistaren teoria. Akritikoki, burua hotz mantenduz informatzeke. Baina Man Haron Monisen bizia eta iragana pixka bat arakatu orduko konturatu ziren bahiketaren egilea metamorfosi ugari bizitako pertsona zela. Kausa baten aldeko eraso baino burutik egindako pertsona baten ekintza zela. Man Haron Monis zela bere benetako izena, baina Manteghi Boroujerdi edo Mohammad Hassan Manteghi izenak ere erabiltzen zituela. Batzuetan Irango erregimenak jazarritako errefuxiatu gisa aurkeztu zuen bere burua –baita Australiako komunikabideetan ere–, beste batzuetan astrologia eta magia beltzean aditu gisa, edota Australiako xiiten buru gisa era bai...

Irandarrek eta Australiako xiitek erasoaren aurretik eman zioten Poliziari Man Haron Monisen berri, bere mozturro, pose eta nortasun joko arriskutsua azaleratuz. Poliziak, baina, jasotako abisuok ez zituen seriotzat hartu. Gerora etorri zena gauza jakina da dagoeneko: erlijio-gizon faltsua oso arriskutsua bilakatu zen,



Hamabi urtez Clark Rockefeller bezala aurkeztu zuen bere burua Christian Karl Gerharsreiterrek. Izen-abizen horiekin ezkontzea ere lortu zuen. Behean, Man Haron Moris, Sydneyko bahiketa egin zuen buruzagi xiita faltsua.
GAUR8



berarekin batera oso errealak ziren beste bi bahitu ere heriotzaraino eramanez.

MIRESMEN AUREOLA

Zaila da, zaila denez, istorio hauetan guztietan ezaugarri komunak aurkitzea eta ondorio zientifiko edo psikologiko borobilak ematea. Iruzurgileak jaio ala egin egiten dira? Iruzurrerako joera sortze beretik duten determinazio biokimikoa da ala gizartean integratu eta nortasun propioa garatzerako orduan sortzen dira jokabide horiek?

Edonola ere, nabarmentzekoa da gutxiagotasun konplexua ohikoa dela horrelako pertsonaia askotan, hots, norbera den moduan izanda, egiarekin aurretik joanda, bere helburuak ez dituztela lortuko uste dutela. Eta, bestetik, gehiegizko ambizioa ere badute, harroputz eta mokoharro aurkezten dira, prezioa edozein delarik ere beren helburuak lortzeko jende espezial eta paregabea direla uste dute.

Baina aipatu behar da ere, gutxiagotasun konplexua gorabehera, historiko iruzurgile eza-gunenek badutela bereizgarri gailen bat, besteekiko nabarmentzen dituen: nolabait esatearren, besteengan miresmen aureola bat sortzen dute. Iruzurgile nartzisistak erakargarritasun horren jakitun dira eta majo esplotatzen dute, pentsaezinak diren mugetaraino. Miresmen aureola hori oso baliagarria zaie nortasun faltsuak eraikitze, gauza jakina baita egiazko iruzurgile batena baino mozturro egokiagorik ez dagoela.

Iruzurgileen erradiografia egitea ez da erraza. Nortasun nahasmenduak, gehiegikeria patologikoak, pertsonalitate deliranteak... asko eta askotarikoak daude. *Nikolas Txikia* berak gaurkotasunera ekarri ditu berriz iruzurgileak, baina ikusi bezala aspaldikoa da kontua, pertsonaren baitakoa, haiena, eta, hein batean, segur aski, denona. Ez al da fikzio eta errealtate kontrajarriak eraikitze joera naturala eta betikoa pertsonengan? Ez garena izatea ez ote dugu amets arrunt normala?

Ikusten da porturik?
Ez dugu ikusten, baina
imajinatzen dugu.
Eta haruntz goaz arraunean

(Joseba Sarrionandia)




1,5€

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN



DAGOENeko

ZURE KIOSKOAN SALGAI



Harpidetu • 11 ale 15€ urtean • www.zazpihaizetara.com



Unai Fernandez de Betoño
Arkitektoa

Sarraskijaleak gainean

Putreek ikusmen eta usaimen boteretsuak dituzte. AEBetatik hauteman dute Euskal Herriko haragi ustela. Adreiluaren zein arbel-gasaren artean ezkutatuta dagoena. Inbertsio funtsez eta petrolio konpainiez mozorrotu arren, mozkin azkarren bila dabiltzan harrapakariak dira. Goldman Sachs eta Lone Star, batetik. Heyco eta Cambria, bestetik. Alor ezberdinetan aritzeagatik ere, helburu berdina dute biek ala biek: besteren sarraskiaren gainetik norberaren lukurua eraikitzea. Besterik ez.

Lone Star putre funtsak Goldman Sachs multinazional haratusteljaleari irabazi egin dio azkenean, eta Kutxabanken higiezinaren erdia erosi duela iragarri zen abenduaren 18an. Merke-merke, ahal bezain laster beste batzuei garestiago saltzeko, hala azaldu ez bada ere. Baina horixe izan da John P. Grayken jabe milioidunaren *modus operandi* sistematiko etekingarria, mundu osoko bankuak "lagundu" dituen, haien menpeko zor ordaingabeak edo mailegu berankorrak merke-zurrean erositzen (%80ko jaitzierak ez dira hain arraroak), ondoren bermeeekin gelditzeko ziztu bizian. Hori buruan erosi zuen maiatzean Eurohypo higiezin maileguen bankuaren espainiar filiala ere, 3.500 euroren truke.


Hego Euskal Herriko hirigintzarako ondorio zuzenak eduki ditzakete aipatutako operazioek. Sareb beldurgarria gero eta salmenta gehiago gauzatzen ari denez, gainera, hemendik aurrera, aski zaila izan daiteke jakitea nork saltzen duen benetan lursail edo etxebizitza bat, edo bankuek zergatik eskaintzen ote duten hipoteka merkeago bat soilik higiezin jakin bat erosteko.

Eta, betikoak, ohi legeez. Alegia, egoerari probetxua ateratzeko. Putre funts atzerritarrek tokiko politikari ustelgarrien beharra dutenez, fitxaketa bitxiak jazo dira. Ikus, bestela, norekin elkartu den Cerberus funtsa, zeina Bush aita-semeen gobernuetako goi kargu ohiek gidatzen duten: Jose Maria Aznar Bottella Espainiako lurzoru lege neoliberalena sortu zuen presidente ohiaren semearekin. Donald Trump lotsagabeak argi utzi zuen 2012ko udan: «Espainia gaixo dago, eta egoera horretaz aprobetxatzeko unea da».

Antzeko zerbait pentsatu zuen Patxi Lopez lehendakari ohiak Arabako lurpeari buruz. Egoera baliatzeko unea zen, nahiz eta horretarako Heyco eta Cambria bezalako enpresa estatubatuarrei arima saldu behar. Zeren eta, a zer kasualitatea, Heyco petrolio enpresa, Iker Armentia kazetariak 2011n argitaratu eman bezala, George W. Bushen hauteskunde kanpainetako diru-emaileetako bat izan zen, ondoren ingurumen arautegiaren malgutasuna trukean lortuz.

Zinez iraingarria da orain, 2014ko abenduaren 18an, PSE «fracking»-aren prozesuari 2011n hasiera eman izanaz damutzea. Sekulako harrokeriarekin, gainera, «ez naiz gorri jartzen oker geundela esaterakoan» esan baitu lasai asko Natalia Rojo ingurumen bozeramaileak. Beharbada PSE ez litzaiteke gorri jarriko, ezta ere, babes ofizialeko 4.000 etxebizitza putre funts bati saltzeko operazioak 2012an kale egin izan ez balu.

Aurretik, hitz ederrak. Atzetik, saldu. •



ILUSTRAZIOA: Unai FERNANDEZ DE BETOÑO

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Komunikazioa ala porrota

Gauzak zitzu bizian aldatzen ari direla erakutsi du joandako 2014ak, hain azkar zein horretaz jabetzea ere kosta egiten den. Hona Euskobarometroan aurkitutako datu galdu adierazgarri bat, denbora nahasi hauen erakusgarri: jende gehiagok ezagutzen du Pablo Iglesias lehendakaria baino. To Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egindako galderen emaitza! Demagun bakar batzuek Iñigo Urkullu nor den noski jakin badakitela baina ez dutela aitortu nahi (ezagutu gabe ere berdin biziko liratekeelako, akaso); hala ere, aldea ikusita, oraindik Iglesias ezagunagoa izango litzatekeela dirudi.

Baina ez dut Iglesiasi eta Urkulluri buruz idazteko asmorik, komunikazio politikoaz baizik. Teknologia berriek (eta zaharrek, Podemos-Ahal Dugu bereziki telebistaren seme-alaba baita) goitik behera aldarazi dute, oso denbora gutxian. Politika joerak nabarmen mugitzen ari direla dio jende askok, baina agian komunikazioa da zeharo iraultzen ari dena. Pentsa dezagun, esaterako, duela oso gutxi arte alderdiek zutela beti hitza, eta herritarrek lau urtean behingo bozen bidez edota militante izanez gero noiz-behinkako asanbladen bidez bakarrik erantzuten zutela. Orain etengabekoa da *feedback*-a, iraunkorra, atsedetik gabekoa. Interneteko neurgailuen bidez, jendeak gehien irakurritako albisteak zein den klik batean ikus dezakegu (eta horrekin eskandalizatu), edo hika-mika batean zein iritziren alde egiten duten, edo zein ordezkari politiko duten gustukoan...

Gauza gehiago, eta kezkarriagoak, agerrarazten dituzte honelako neurgailuek. Adibidez, harrigarria da batez beste zein denbora gutxi ematen duen irakurle batek Interneteko albiste batean begirada pausatzen; gehienetan, segundo batzuk baino ez. Twitterreko 140 karaktereek komunikazioaren mugaren neurria ematen digute. Gizartearen infantilizazioaz, superfizializazioaz eta arinkeriaz hitz egin genezake, baina alferrik da. Honelakoak omen gara, bestelako teknologiek dagoena gainditu eta kontrakoa frogatzen ez diguten bitartean behintzat. Hortaz, hitz-jario astunek ez dutela era-

ginkortasunik ikasi dute lehenik zuzentasunaren ikono zen Diputatuen Kongresuko hizlariak, eta, urrutira joan beharrik gabe, performance politiko arrakastatsuak egin dituzte Amaiurko diputatuek: Cuadra torturatzeko poltsa eskuan, Errekondo belauniko zigorturik Franco-ren garaiko gela batean egongo balitz bezala, Enbeitaren «*mi coño y mi moño*» esaldia... Gaur egun, 1978an bezala, oholtzara igo eta ukabila altxaturik berriz ere “Gora Euskadi askatuta!” oihukatuko balu, Ortzik Youtubeh ehun bisitatik gora izango ez zituelakoan nago.

Gogoko izan ala ez (nik batere ez), komunikazioan jarduten dugunok badakigu borroka hor dagoela, eta heldu behar zaiola. Printzipio politikoei ondo eutsita, horretan asmatzea funtsezkoa da. Ez lioke Euskal Herriak erronka horri beldurrik izan beharko, mundu osoari kontatzeko eta erakusteko asko duelako. Istorioak eta irudiak barra-barra, edonoren bihotzera eta burura helarazteko modu-

Komunikazioan jarduten dugunok badakigu borroka hor dagoela; printzipio politikoei ondo eutsi eta komunikatzen asmatu. Ez lioke Euskal Herriak erronka horri beldurrik izan behar, mundu osoari kontatzeko eta erakusteko asko duelako

koak. Hasteko, 469 preso eta beren senideena, parekorik ez duen zigorra jasaten ari direnak. Zabal dezagun ahalik eta urrutien, zenbait eta zehatzago hobe, nazioartean uler daitekeen hizkuntzan (San Mamesko “*One country, one team*” adibide), kanpokoen arreta erakar dezakeen tokitik (hurrengo mobilizazioaren bat zergatik ez Guggenheimen?). Eta segi dezagun gero egoki eta indartsu komunikatzen: kalean egiten dena (Gure Esku Dagoren mosaikoa, bikain!); erakundeetan egiten ari dena (Ahal Duguk ez duela ezer asmatu erakusteko, bide batez); garena (non galdu dira “Euskal Herria askatu”, “*Welcome to the Basque Country*” eta horrelako kanpainak?); eta batez ere, izan nahi duguna. Egoki komunikatzen ez badugu, ez baikara izango. •

ACABE GIPUZKOA

Hogei urte elikadura nahasmenduak dituzten pertsonei laguntza eskaintzen

 **JENDARTEA** / Nerea Goti

Hogei urteko ibilbidea egin du ACABE Gipuzkoak, elikadura nahasmenduak dituztenei eta hauen familiei laguntzen. Izen eta helburu bereko beste bi elkarte ere badaude Bizkaian eta Araban, baina Gipuzkoakoa izan zen lanean hasten lehena. Urtemuga aitzakiatzat hartuta, elkartearen lana eta gaitzon bilakaera errepasatu du GAUR8k.

Hogei urte bete berri ditu jada ACABE Gipuzkoak anorexia eta bulimiarren kontrako elkarteak. Behin urtemuga borobil horretara helduta, komeni da gogoratzea berezia bezain adierazgarria izan zen gaixotasunaren bisibilizazioa lortu zuen herri proiektu honen jaiotze “telebisiboa”. Gogoan izango

dituzte (adin batekoek behintzat) Antxon Urrusolok ETB2 katean gidatzen zituen saioak. Haietako bat anorexia eta bulimiari buruzko monografikoa izan zen; 1994. urtea zen eta oso ezagunak ez ziren elikadura nahasmenduak azalarazi eta gaixoen familiak kontaktuan jarri zituen, gerora lan mardula egingo zuen elkartearen hazia jarritz. Telebista saio hark 60 dei inguru jaso zituen. Piztutako

arreta ikusita, deitzaileen telefono zenbakiak hartu zituzten pertsona haien arteko lehen kontaktua posible egiteko. «Gaixo eta senideak ziren deitu zutenak, eta arazo bera zuten beste batzuekin kontaktuan jarri nahi zuten», azaldu du Garbiñe Agirre ACABE Gipuzkoako koordinatzaileak. Gogoratzen duenez, garai hartan elikadura nahasmenduen gaineko informazio gutxi zegoen, eta batik

bat anorexia zen ezaguna, ez bulimia.

Hori horrela, telebistako saiotik zortzi egun eskasera Donostian egin zuten lehen batzarra, Antiguako kultur etxean; aste bat geroago, Bizkaian bildu ziren. Joan-etorriak errazteko, nafarrak eta gipuzkoarrak Donostian biltzen ziren, eta, Bizkaian, bertakoak eta arabarrak.

«Gaixotasunari aurre egiteko bereziki prestatutako baliabideak lortu behar ziren, ez zeuden espezialistak. Donostian baze goen emakume talde bat gaixotasuna buruko ohiko gaitzetan sartzen ez zela ikusita biltzen hasita zena, eta horiek elkartean sartu ziren», kontatu du.

Lanean hasteko, elkartearen izaera juridikoa zehaztu behar zuten. Madrilen martxan zegoen elkarte baten esperientzia hartu zuten eredu, baita Kataluniako beste talde bat ere. Azken talde horretako kide batek inplikazio handia izan zuen euskal elkartearen sorreran. Katalanen

estatutuak oinarri, 1994ko iraillean ACABE Euskadi izenarekin jaio zen gerora ACABE Gipuzkoa izena eraman duen elkarteak.

Eskumen kontuak tarteko, Nafarroako elkarteak ezin izan zuen Araba, Bizkai eta Gipuzkoakoarekin batera erregistratu. Hala, izapideak bere aldetik egin zituen gerora Madrilén. Bestalde, administrazioetik diru laguntzak lortzeko bidean beste errealtate batekin egin zuten topo: diputazioek ez zituzten beste herrialde batean egoitza zuten proiektuak laguntzen, eta, horrela, banatzen hasi ziren, EAEko herrialde bakoitzeko ACABE bana sortuz eta ABAN izeneko elkarteak Nafarroan. Harremanetan daude oraindik, baina elkarte bakoitzak bere ibilbide propioa egin du.

Behin ACABE Gipuzkoa eratu-ta, lan egiteko lokal baten bilaketa hasi zen. Egiako Maria Erregina elizako apaiz batek lokal bat utzi zien. Bertan hasi ziren biltzen ostegunero, eta handik hasi zen elkarteak bere burua ezagutarazten, baita gaixotasunari buruzko informazioa zabaltzen ere. «Kideak egiten hasi ginen, fitxa indibidualak egin genituen... Pixkanaka-pixkanaka jendea elkartera heltzen hasi zen eta gero eta lagun gehiago biltzen ginen», ekarri dute gogora elkartearen hasierako urteez galdetzean. Aurrean, baina, lan itzela zuten, bai instituzioen aurrean, bai osasun arloko agintarien aurrean ere.

«Arreta egokia lortzea genuen helburu, eta hizketan hasi ginen osasun zerbitzuekin, baina ez zioten gaiari garrantzirik ematen», gogoratu du Agirrek. «Horrenbeste anorexia eta bulimia kasu ez zeudela zioten, baina guk ordurako bagenituen datuak, elkartean egindako erregistroak, eta bagenekien anorexia eta bulimiaren ondorioztat jotako ospitaleratzetik erregistratuta ez izanagatik, errealtate hori hor zegoela; adibidez, bere buruaz beste egiteko saiakerengatik edota bestelako arriskuengandik ospitaleratzen zituzten gaixoak», kontatu du Lakuako Gobernuak eta Osasun Departamentuko arduradunekin izandako lehendabiziko harreman gorabeheratsuak gogoan.



Ispilu aurrean ipini eta bueltan datorkizun irudia atsegin izatea ez da ohikoena gazteen artean. THINKSTOCK

FAMILIA FUNTSEZKOA DELAKO, GAITZARI AURRE EGITEKO GIDA BAT

Gaiari «kaña sartuz» Osakidetza mugitzen hasi zela dio ACABE Gipuzkoako ordezkariak. Azaltzen duenez, «konturatu ziren lan serio bat egiten ari gine-la. Ospitaletatik kanpo aritzen ziren osasun mentaleko adituekin harremanak genituen, eta bazeuden ordurako elikadura nahasmenduak landuta zituzten aditu batzuk, Imanol Kerejeta edota Blanca Moreda kasu».

Gaitzok ikusarazteko administrazioen aurrean urratsak ematen zituzten bitartean, elikadura nahasmenduok sendatzeko bidean ere ikasgai garrantzitsuak jaso zituzten. Horren adibide da ikusi zuten beste beharrian bat: etxebizitza bat izatea zenbait gaixo ahalik eta egoera onenean tratatzeko. «Euren etxeetatik irten beharra zuten gaixoen kasuak ikusten hasi ginen. Kasu batzuetan hain zen txarra etxeko giroa eta egoera, jende horrek ez zuela sendatzeko beharrezko girorik ere. Hala, planteatu genuen zaintzapeko pisu bat antolatzea», gogoratu du. Donostiako Udalak utzi zien etxebizitza eta elkarteko jendek muntatu zuen guztia, goitik behera. Gipuzkoako Diputazioaren laguntza zuten ordurako, baina ez oraindik osasun zerbitzuena. «Berehala konturatu ginen pisua martxan izateak elkarrekin bere gain hartzerik ez zuen kostu ekonomikoa izan zezakeela», gogoratu du Garbiñe Agirrek.

PROGRAMA ESPEZIFIKOA

Denborarekin Donostiako Udalak aldaketa bat proposatu zien: egokitutako pisua udal jabetzara pasatzea eta trukean Intxaurrendoko Mons pasealekuan lokal bat ematea. Esan eta egin. Kutxako Gizarte Ekintzaren laguntza ekonomikoarekin lokala apaindu zuten eta gaur egunera arte bertatik jarraitu du lanean ACABEk.

Hori bai, Debagoieneko udalekin ere harremanetan jarri zen garai horretan elkarrekin beste kezka bat azaltzeko: garaiko garraio zerbitzuak ikusita, zail egiten zitzairen gaixoei eta familiei Donostiara joatea. Arazoa helarazi, eta, diotenez, ha-

«Bulimia nerviosa. Guía para familiares» liburua argitaratu berri dute Idoia Duo, Mari Paz Lopez, Judith Pastor eta Ana Rosa Sepulveda psikologoek, ACABE Bizkaia elkartearen parte hartzearekin eta Ediciones Pirámide argitaletxearen eskutik. Argitalpenak laguntza praktikoa eskaintzen die senitartekoei egoera batzuen aurrean erantzuten jakin dezaten. Bilboko Hara Albiako Item zentroan duen kontsultan aurkitu genuen Idoia Duo liburuaren egileetako bat. Gida horrek zer eskaintzen duen azaldu zion GAUR8ri, eta, bide batez, aditu gisa, gertutik ezagutzen dituen elikadura nahasmenduen arloan azken urteotan izandako bilakaera azaldu zigun. Duoren hitzetan, bulimia nerbiosoa elikadura nahasmendu mota bat da, eta, anorexian bezala, argaltzeko edo pisua ez irabazteko obsesioa dago muinean. Aldiz, sabelkadak dira bien arteko ezberdintasuna, bulimiaren kasuan astean behin ematen direnak.

Gaitza duten pertsonen senideentzako argitaratu duten gida batez ere nerabe eta heldu gazteen gurasoei zuzenduta dago, baina hezitzaile edota pediatrentzat ere oso erabilgarria da.

Duok gogoratu duenez, aurreko hamarkadetan senideak tratamenduetatik ateratzen ziren; orain, aldiz, familiaren parte hartzea funtsezkoa da adituen ustez. Eta horregatik, hain zuzen, familiaren erreakzioak lantzen laguntzen du argitalpenak, urteetako praktika klinikoan izandako esperientzia oinarri. «Senitartekoen adierazpenek alaben errehabilitazioan lagundu dezakete, edota errehabilitazioa mugatu dezakete. Oso garrantzitsua da lasai erantzuten ikastea, uler dezatela gezurrak zergatik esaten dituzten, hori baita oso har gurasoak gehien haserretzen dituen, botaka egin dutela ukatzea dietela...», zehaztu du.

Datu adierazgarri bat ipintzen du mahai gainean Duok: «paziente gehienek aitortzen dute tratamenduan zehar familiaren laguntza handiena bera kontrolatzeari utzi eta pasatzen ari dena ulertu dutenenean jaso dutela». Adituaren azalpenak jarraituz, kontuan hartu behar da bulimian ondorio paradoxiko bat ematen dela, «gero eta kontrol handiagoa, gero eta deskontrol gehiago». Horrek badu bere azalpena: gaixoa sendatzea beraien esku dagoela uste dute gurasoek, eta ez da horrela, gaixoaren esku dago gakoa. «Gaixoak

berak garatu behar du bere buruarekiko kontrola, eta hori apurka-apurka lantzen da. Bitartean, gurasoek sintomak toleratzen ikasi behar dute», zehaztu du Duok.

Gidak familiaren emozio egoera ere hartzen du kontuan. «Familia itoaldi batean bizi bada, horrek erreakzio txarrak ekartzen ditu. Beraz, familiari emozionalki suspertzen lagundu behar diogu, arazoa kudeatzeko gaitasuna izan dezan», azaldu du.

Duok, bestalde, gaixotasunaren bilakaera argia ikusten du azken urteetan. Dioenez, lehen anorexia kasu gehiagorekin lan egiten zuten, eta, orain, berriz, bulimiak ohikoagoak dira, sabelkadekin lotutako kasuak batik bat; «azken batean, bulimia bihurtutako anorexiak daude oinarrian, eta ez dakigu zehazki zergatik gertatzen den hori. Izan ere, nahikotxo hazi da hemen bilakaera hori, baina ez beste herrialdeetan», azaldu du.

Sare sozialen eraginak ere kezka eragiten die aditu eta familiei. Duok diotenaren arabera, adin txikikoak dira gehienbat orrialde arriskutsuetan sartzen direnak: «Oso egoera arriskutsua da nerabeen kasuan, askotan estimu baxuko pertsonak direlako, izaera eraiki gabe dutenak... Orrialde horiek bultzatzen dute gaixotasunaren bidez izaera bat eraikitzea, pisuaren galera positiboki indartzen dute, jokabide murriztaileetan estimulatu dituzte...». Adituen esanetan, 12 eta 21 urte bitartean dago arrisku handiena, baina txikiagoak ere hartzen dituzte kontsultetan.

Normalean anorexiarekin heltzen dira, baina adin goiztiarragoetan elikadura koadro murriztaileak ikusten hasi dira jada, baita elikadura nahasmenduak dituzten helduak ere.

Datu baikorrak ere badaude, gurasoek informazio gehiago baitute eta lehenago identifikatzen baitute arazoa: «Horregatik, bete gabeko koadro asko heltzen zaizkigu, gurasoek arazoa garaiz ikusi dutelako eta gaixotasuna ez delako oraindik guztiz garatu». Kasu horietan, noski, irtenbidea errazagoa da.

Mezu bat ere utzi nahi izan du Duok gaixotasuna pairatzen duten guztientzat: arazoak irtenbidea dauka. Denbora kontua da, bai, baina posiblea da sendatzea. Hori bai, gaixotasuna onartzea ez da bakarrik pazientearen lana, familiarena ere bada. Ez dago errudunik, faktore askok eragiten dute gaixotasunean eta inportanteena da garrantzia ematea eta tratatzen hastea, ez pentsatzea adinarekin lotutako tontakeria bat besterik ez dela.



Idoia Duo psikologoa, idatzi duen liburuarekin. Monica DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

rrera ona izan zuen kezka. Izan ere, Arrasateko Udalak lokal bat utzi zion ACABEri, eta Lankide Aurrezki Kutxak laguntza eman zuen berau apaintzeko. Horri esker, oraindik ere astean bi arratsalde irekita dago lokala gaur egun elikadura nahasmenduak dituzten gaixoan eta haien familiak hartzeko.

Zerotik jaiotako elkarte baten hogeitazko urteko lana laburbiltzea zaila da. Hasteko, tramite burokratikoak gaitzitu behar izan zituzten, elkarte modura lan egin ahal izateko; gerora, beharrezko gutxieneko baliabide materialak izatea eta gaixotasunon tratamendurako oinarri sendoak ipintzea izan da etenik gabeko helburua; eta, bidean, orain ulergaitza egiten bada ere, administrazioko agintariak konbentzitu behar izan zituzten elikadura nahasmenduak arreta berezia behar zutela uler zezaten. «Esaten genien une hartan zeuden baliabideek ez zutela egoki funtzionatzen, beharrezkoa zela arreta berezi bat nahasmenduok behar bezala artatzeko», gogoratu du Agirrek. Azkenean, Lakuako Gobernuarekin izandako hamaika batzarren ostean heldu zen elikadura arazontzat bereziki bideratutako «programa espezifikoa».

Gipuzkoaren kasuan, 1998tik martxan dagoen programak arreta berezia eskaintzen du Eibarren, Errenterian eta Donostian. Donostian psikologo bat eta psikiatra bat daude lanean, baina ez jardunaldi osoko lanaldiarekin; Errenterian eta Eibarren, berriz, lanaldi erdia duten psikiatra bana ari dira lanean. Hiru arreta zerbitzuek endokrino baten laguntzarekin kontatzen dute ospitalean, baina azken horren kasuan ere lanaldi erdia bakarrik du elikadura nahasmenduak dituzten gaixoei eskaintzeko.

«Guk esaten duguna zera da: arreta zerbitzuetan lantalde egonkorak izan behar ditugula. Programa espezifikoa berrindartzea ere eskatzen ari gara, egungo baliabideekin ez direlako heltzen. Espezialistek eurek esaten dute topera daudela», argitu du Agirrek. Azaltzen duenaren arabera, bitarteko gutxi dituzte eta bajak daudenean ez dago ordezkorik;



gainera, programatik jende ezberdin asko pasatzen da. Agirrek dioenez, horrek arazo larri bat sortzen du: «Jada bere konfiantza bereganatu duen profesionalak programatik alde egiten duela ikusten du gaixoak bat-batean, eta ordezkari bat datorrela. Hori ikusita, gaixo askok tratamendua bera ere uzten du». ACABEtik diotenez, programa indar dezaten jo eta su ari dira borrokan, baina «ez dago modurik». «Dirua zegoenean ez zela ghettorik sortu behar esaten ziguten, eta, orain, dirurik ez dutela!».

Elkartearen ondoan gaixotasunak berak ere ibilbide paraleloa izan du azken hogeitazko urteotan. ACABEk berak emandako datuen arabera, 1.590 gaixo pasatu dira Gipuzkoako elkartetik 1995 eta 2014 artean, %95 emakumeak eta %5 gizonak. Gurean, estatistika orokorrak ez direla betetzen dio Agirrek, oro har gaixoen %10 izaten baitira gizonak.

«Orain, urtean 80 kasu berri inguru jasotzen ditugu Gipuzkoan. 2003an inoiz baino kasu gehiago artatu genituen, baina arrazoia da komunikabideetan oihartzun handia izan zuen biltzar bat antolatu genuela garai hartan; ezagunak egin ginen eta hurrengo hila-beteetan jende asko etorri zen

ACABE Gipuzkoa elkarteko bi kide lanean, Donostiako Mons pasealekuko egoitzan.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

gurera, ezagutzen gintuelako», azaldu dute elkartekoek.

ZERBITZU GUZTIAK DOHAINIK DIRA

Behin ACABE Gipuzkoak eskaintzen duen laguntza ezagututa, tunelaren amaieran argi izpiak ikustea bezala izan daiteke bertara jotzea askorentzat. Mons pasealekuko bulegoak goiz eta arratsalde daude zabalik egunero. Bertan gizarte langile bat, koordinatzailea, bi psikologo eta nutrizionista bat aritzen dira. Horrez gain, boluntario gisa aritzen diren senideak ere izaten dira bulegoan, batez ere ikerketa lanetan aritzen direnak.

Nabarmetzen dutenez, jende-ari laguntza berbera eskaintzen zaio elkarteko kide egin ala ez, ki-

deak familiak dira eta ez gaixoak, eta zerbitzu guztiak dohainik dira. Argi uzten dute, era berean, elkarteak ez duela tratamendurik eskaintzen. «Ez da Osakidetzaren ordezkari zerbitzu bat, ezta profesionalen kabinete bat ere», zehazten dute.

Atetik igarotzen diren gaixo eta familiek batzuetan diagnostikoa izan badute, baina ez beti. «Especialistengana bideratzen ditugu beti. Gure profesionalen lana informazioan eta orientazioan dago zentratuta, batik bat familiei laguntza psikologikoa ematean, Osakidetzaren ahaztu nagusiak direlako, batez ere gaixoak helduak direnean», dio Agirrek.

Orientazio lan hori batez ere gaixotasunaz kontzientzia hartzera dago bideratuta, eta ez da erraza. Urteetan landutako esperientzian oinarrituta harrerako arreta horretan ikusten dutena kontatzen dute ACABEkoek: «Askotan elikadura nahasmenduak ez dira gaixotasun bezala ikusten, kontu iragankor bat bezala hartzen dira; 'argal egon nahi dute eta nahi dutelako daude gaixo', pentsatzen da. Horregatik, gure psikologoek kontzientziario arloan lan handia egiten dute. Gaixoei maila indibidualean zer gertatzen zaien jakitea bilatzen dute

«Urtean 80 kasu inguru izaten ditugu Gipuzkoan. 2003an inoiz baino kasu gehiago artatu genituen, baina oihartzun handia izan zuen biltzar bati esker ezagun egin ginelako izan zen»

ACABE Gipuzkoako ordezkariak nabarmetzen dutenez, laguntza berbera ematen diete gaixo zein familiei elkarteko kide izan ala ez, eta familiak dira kide egiten direnak, ez gaixoak

«Horrenbeste anorexia eta bulimia kasu ez zeudela zioten, baina guk ordurako bagenituen datuak, elkartean egindako erregistroak, eta bagenekien errealtate hori hor zegoela»

«Borrokak jarraitzen du Osakidetzaren aurrean egun dauden programak indartzeko. Dirua zegoenean ghettorik sortu behar ez zela esaten ziguten, eta, orain, berriz, dirurik ez dagoela!»

gure adituek, euren egoeraren ja-be egin eta Osakidetzako zerbitzura edo arlo pribatura jo dezaten tratamendu bat jarraitzeko».

Helburua lortuz gero, atzerapausoa ematen dute. «Behin tratamendua abian jartzen denean eta gaixoak bere bidea jarraitzen duenean, ‘askatzen’ hasten gara, gaixoak ezin direlako bi psikologorekin tratatu», azaldu dute elkartetik. «Batuetan laguntza ematen dugu, adibidez, programa espezifiko batean ez dagoen neska bat osasun mentaleko zerbitzuan hilean behin bakarrik tratatzen dutelako. Profesionaleen baimenarekin jasotzen ari den tratamendua elkartetik indartzen dugu, baina betiere espezialistaren oniritziarekin; askotan profesionalek agenda goraino dutelako eman behar dugu laguntza hori», gaineratu dute.

ACABE Gipuzkoako lagunei gaitxoan profileen aldaketarik sumatu duten galdetu diegu. Jasotzen dituzten kasurik gehienak espezifikatu gabeko elikadura nahasmenduak direla zehaztu dute. Hau da, nahasmenduak agertzen dituzten gaixoez ez dute oso-oso-rik betetzen anorexia edo bulimia diagnostikatzeko beharrezko koadroa, irizpide batzuk betetzen ez dituztelako. Esaterako, anorexia diagnostikatzeko beharrezkoa da hiru ziklo jarraitutan hilekorik ez izatea, edota, bulimiarekin kasuan, denbora zehatz batean hainbatetan botaka egin beharra dago, jokaera konpentsatorioa izan behar da...

Adinari dagokionez, berriz, nerabeak eta emakume gazteak dira batik bat artatzen dituztenak. Gazteenak senitartekoek edota kuadrillako lagunek laguntzen dituzte elkartera; nagusiagoak, berriz, bakarrik edo bikote-lagunarekin heltzen dira. «Anorexia pairatzen dutenak. berriz, gehienetan ekarri egin behar izaten dituzte», onartu dute. Batez besteko adina 30 urte ingurukoa da.

«Ikusten ditugun anorexia kasu gehienetan, betekadak izatera igarotzen dira denborarekin gaixoak. Nahasmenduak izaten dituzte, bulimiara iritsi ez arren: tripakadekin hasten dira, botaka egiten, gehiegizko ariketa fisikoa egiten, laxanteak hartzen...», kon-

tatu du Agirrek. Horregatik da inportantea prebentzioa, informazioa ematea, «baina ez era espezifikoa, informazio horrek berak bultzatzen dezakeelako gaixotasunera». ACABEko koordinatzailearen arabera, «irakasle eta hezitzaile asko hurbiltzen dira elkartera prebentzio hitzaldiak eskatzera, baina ez da gomendagarria elikadura nahasmenduei bereziki zuzendutako hitzaldiak ematea, izugarritzko erakargarritasuna sorrarazten dutelako neskengan».

Agirreren ustez, prebentzioa familia giroan egin behar da, familia delako detekzio goiztiarra egin dezakeena; sintoma eta jokaera batzuei adi egotea gomendatzen du, garrantzia emateko eta medikuari galdetzeko. Baina obsesio-natu gabe, adin batean nerabe eta batez ere neska gehienak «kiloak kontrolatzen hasten direlako».

ACABEn garrantzi handia ematen diote familiari, ez bakarrik prebentzioan, baita tratamenduan ere. «Funtsezkoa da ingurua, eta kontuan hartu behar da familia aztoratu egiten dela; ez duzu ulertzen zure alaba gosez hiltzea hozkailua beteta izanik, eta, saiatuagatik ezinezkoa da psikologoaren lana egitea». Agirreren ustez, familiak familiaren lana egin behar du, eta, lagunak lagunena; izan ere, «sarri mediku edota polizia lanak egiten hasten gara eta horrek giroa gaiztotu egiten du. Etsaia gaixotasuna da, ez familia», dio irmo amaitzeko.

ACABE Gipuzkoak dohainik ematen du laguntza, elkarteko kide izan ala ez. Egiten duten lana informazioan eta orientazioan zentratuta dago, eta arreta berezia eskatzen diete familiei

Familia oso garrantzitsua da bai prebentzioan bai tratamenduan. Hori bai, «familiak familiarena egin behar du, ez mediku edo poliziarena, funtsezkoa baita giro egokia lortzea etxean»

Dumitru

Maidar lantzi Goienetxe

Umatzeko leku on baten bila ibaian goiti igeri egiten duten izokinak bezala etorri da Euskal Herrira Cosmin, Dumitru semeari bizimodu hobea eskaini nahian. «*Danubio no azzurro. Dunărea este neagră! Danubio nero!*», penatu da kale kantoian eskusoinua jotzen ari dela “Danubio urdina” eskatu diotenean. Danubio ez da urdina, beltza da eta horregatik gomendatzen dio semeari ez bertara itzultzeko eta ur gazian bizitzen ikasteko.

Duintasuna sentitu dut Koldo Izagirreraren “Dumitru” irakurtzean, hasi eta bukatu, bi aldiz, hainbertze gustatu zait... Baina injustiziak eragindako amorrua hazi zait barrenean, eta estutasuna arrainaren lekuan jartzean. Uretatik atera dute eta ahoa ireki eta itxi dabil arnas bila. Alde guztietara mugitu arren sarean harapatuta dago. Baina badu borrokarako grina, irristakorra da eta ihes egin du ito nahi duten atzaparretatik. Salto batean uretan da berriro, berreskuratu du arnasa.

Dumitru euskalduna da, baina errumaniarra ere bada eta horrek arazoak ekartzen dizkio. Buruan iltzatuta gelditu zait semea-ri ematen dioten tratatu txarraren aitzinean ukabila estututa aitak erraten duena: «Dumitru euskalduna da, baina euskaldunek horrela tratatu behar baduzue, hobe du errumaniarra izan».

Egunero aditzen ditugu etorkinenganako injustiziak, baina beteta dugu bihotza eta batzuek itxita ere bai estereotipoak direla-eta. Eguneroko ogia ditugu horiek ere. Samurra da arraina. Kontua da nola transmititu eta nola aldatu mila ideia oker. Ulermena ez da hizkuntza kontua, itxita dagoenari ez zaio deus sartzen eta hurbiltzen ez denak ez du ezagutzen. Ur beltzak ez datoz Danubiotik. Marmarrek arrainak itotzen dituzte. •



IKUSMIRA

PANKARTAN HOZTUTAKO ESKUAK



Gabonak epelak omen. Sutondoak, etxeko epelak eta jatekoz eta jendez betetako mahaiak. Hala omen, iragarkietan edo. Gurean Gabonek pankartako pintura usaina daukate, pankartetan hoztutako eskuak eta eurtan umeldutako sudurrak. Inoiz baino jendetsuagoak diren sukaldeetan inoiz baino nabarmenagoak eta mingarriagoak direlako hutsuneak. Eta ziegetako hotsarekin eta bakardadearekin akordatzen da gure herria, urteko egun guztietan, baita hauetan ere. Eguna itzaltzen denean pizten dira kinkeak, beroa eramateko berorik ez dagoen toki urrunetara, ezto-kietara. Pankartan hoztutako eskuak, bihotzak bezain hotz, noiz epelduko zain. Hotz daukelako, baina ez itzalita.

amagoia.mujika@gaur8.info



Alboko orrialdean, kinkea piztuta eta Bilbon izandako elkarretaratzea. Orrialde honetan, goiko partean Martuteneko espetxera martxa eta euskal selekzioaren futbol partidan jasotako irudia. Ezkerretara, Hernanin gaixo dauden presoek aldeko ekimena eta lerro hauen azpiko aldean emakume bat ikurrina eusten presoek aldeko ekitaldi baten. Syilvain SENCRISTO- Monika DEL VALLE- Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS



{ analisis } Beñat Zamalloa Akizu

Funtsezko drama pertsonala

Pertsonala, «oso pertsonala», da Iñigo Ibarren (Markina-Xemein, 1971) antzerkia egiteko eta ikusteko moldea. Molde hori azaltzera etorri zen Aretxabaletara, Mondragon Unibertsitateko Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu titulura, Iñigo Ibarra edota *Ander Lipus*. Pertsonala eta bakartia du ibilbidea: «Oso gutxi gaude antzerkia molde horietatik egiten». Euskarazko sorkuntza askorik ere ez dago. «Errealitatea da ez dugula eraiki merkatu bat. Hegoaldeko aktoreak Espainiara begiratzen ari dira». Eta argi du: «Espainolei ez diegu ezer kopiatzeko». Hegoaldeko lau herrialdeetan Espainiako eredia jarraitu da: «Lehenengo mausoleo bat eraiki, kultur etxe erraldoi bat eraiki, nahiz eta ez jakin zer eramango dugun, nahiz eta ez dakigun ze diru daukagun hori eramateko... baina eraiki: 'Behintzat, eraiki egingo dugu. Horrela dirua irabaziko da eta dirua mugituko da'. Erradikala da konponbidean: «Nik bonba jarriko nuke, eta berriro hasiko nintzateke eraikitzen». Hala lortuko omen luke euskal antzerkigintzak kulturalki «prehistorian» egotetik ihes egitea.

Antzerkigintzak «lan handia» du egiteko. Paradoxikoki, antzerkia oso talde lanekoa izanda, eraiki diren formulak «oso indibidualistak» dira. Oso gaitz ikusten du aktoreak antzerkigintzaren berezko talde dinamiketara eta eraginkortasunera ekartzea, herrigintzari dagokionez. «Ikusten dut bakoitza berea salbatu nahian dabilela: 'ea bihar nik non lortzen dudana lana'». Beste «kontzientzia politiko bat» da Lipusena: «Niretzat freskagari iragarki bat egitea ez da

Ander Lipusen antzerkia egiteko eta ikusteko moldea oso pertsonala da. Panorama beltz samarra dela esaten badute ere, Lipusen esanean «asko dago egiteko», eta horrek «libertatea» ematen dio probatzen eta jolasten ibiltzeko.

aktorea izatea; nahiz eta erresetzatzen dudan. Nik beste kontzientzia politiko bat daukat. Niretzat aktore, komediante edo bufoi izateak beste zentzu bat dauka». Lipusek bere ibilbidean egin duena eta egiten duena bere inguruari eta errealtateari oso lotuta dago. «Saiatzzen naiz nahiko zintzoa izaten bizi dudan errealtatearekin». Unean-unean bizi duen imajinarioa irudikatzen saiatzen da. Ondorioa, esamolde batean ekarriagatik, egoeraren neurrikoa da: «Askok dago egiteko». Eta horrek «libertatea» ematen dio probatzen eta jolasten ibiltzeko.

Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako kontratazio formula artisten eta toreroen erregimena da. «Ni langile bat naiz, ez naiz toreroa. Ni goizeko zazpitan edo zortzietan jaikitzen naiz, hartzen dut furgoneta, nire obrako dena muntatzen dut, herri horretan bazkaltzen

dut, botatzen dut nire siesta teatroan manta baten azpian, jarraitzen dut...», eta hala ikusleak agurtu eta dena desmuntatu arte. Lipusek antzerkigintzarako duen politika, baina, ez da orokorra: «Normalean aktoreek honakoa egiten dute: ni joaten naiz arratsaldeko lauretan edo bostetan, makillatzen naiz pixka bat, egiten dut teatroa eta banoa etxera». Aldea teatroa sentitzeko maneran omen. «Niretzat teatroa furgoneta gabe, ez da teatroa».

Hitzaldia egitera etorri zen astean sinatu zuten Euskal Aktoreen Batasunak eta Eskenak lan akordioa. Sinatzeko ekitaldia akordioan zentratu bazen ere, aktoreen langabezia tasa %80 baino handiagoa dela jakinarazi zuten eragileek. Espainiako ereduaren estandarizazioaren eta homogeneizazioaren pean ulertzen du Lipusek egoera. «Aktoreak pozik badaude euren

%80ko langabeziarekin, bada listo. Nik nire burua langabezian ez dut imajinatzen. Lotu egin beharko nindukete». Aurrera egiteko bestelako plazak aipatu zituen: gaztetxeak eta kultur etxeak, esaterako. «Gaztetxe batek ehun euro pagatzen dizkizu zerbait egiten baduzu, egin hamar gaztetxe eta baduzu mila euroko soldata. *Mileurista* bazara jada. Egiteko zain egon behar duzu?».

Oso indibidualista

«Antzerkiaren mundua oso indibidualista da». Bertsolarien eredia «kopiatu» nahirik sortu zuten Euskal Herriko Antzerkizaleen Elkarte, baina antzerkiaren munduak duen ezaugarri horrek eragina izan zuen. «Orain konturatzen naiz sekulako akatsak egin direla EHAZE sortzerakoan. Nik egin ditut asko, eta, gero, kontra egon naiz beste gauza askorekin». Iaz Bilbon egin zuten Antzerkizale Eguna ere luze gabe igarota zen. «Penagarria da lau katu ginela. Hor konturatzen zara ez dagoela ez Euskal Herri-rik, ez ezer. Zein da arazoa? Ez dela beharrik sentitu. Ez badago beharrik, ez dakit merezi duen katetik jarraitzea». Izenaren lehen bi hitzetan dago «akatsik handiena». Herriz herri eratuz joan beharrean, «azalekoa» egin zen. «Eztabaidak mundu espektakularra ukitzen denean sortzen dira».

Erritualaren beharra aldarrikatu zuen. Bertsolaritza erabili zuen errituala azaltzeko. Lagun batzuk zaletasunez bertsotarako elkartzeari deituko zion errituala. «Errituala ez badago, beste guztiak ez du ezertarako balio, ikuskizun hutsa da».

Ander Lipusen ibilbidearen zati berrienaren atzean «eraba-



ki politikoago» bat dago, eta erabaki horrek euskara du ardatz. «Oso desberdina da Bilbon kokatzen duzunean zure imajinarioa edo zure imajinarioa kokatzen duzunean Barxotetik Balmasedara eta Ondarroatik Tuterara. Prisma eta kontatu nahi duzun hori ere aldatu egiten da».

Bere ibilbideko une batean munduko hainbat lekutan jardun zen bere obra erakusten. «Nahiz eta obra euskaraz pentsatua izan, une batean konturatzeko zara ez duzula antzerkia egiten Euskal Herrian. Hori ez nuen ulertzen». Madrilerantz antzerki ikasketak egitera joan zeneko Oscar sariengandako lilura ahaztuta, Euskal Herrian egon ez den transmisioa bideratu zuen indarra: «Nire mugimenduak Kairon ulertzen zituzten, baina Euskal Herrian ez. Zerbait egin behar zela pentsatu nuen. Nire kodeetan sartu nintzen herrian, eta herria zein pentsamendutan mugitzen den ikeritu nuen».

Transmisioaren katebegiek jarraitu dute lotzen Lapurdi,

Ander Lipusek Mondragon
Unibertsitateko Euskal
Kulturgintzaren
Transmisioa aditu
tituluan partekatuta ditu
bere gogoetak.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Zuberoa eta Nafarroa Beherean. «Iparraldean beste joera bat dago antzerkiarekiko, beste ikuspuntu bat. Hegoaldean transmisioa ia ez da egon, Iparraldean, aldiz, zuzena da». Galduz doan transmisioa da, baina oraindik bizirik dagoena. «Zer geratzen zait niri aktore moduan Iparraldera noanean? Jendeak ulertzen duela. Zer da jendeak ulertzen duena? Antzerkiaren kodeak ulertzen ditu». Horrek «eroso» sentiarazten du, eta Iparraldera joatera bultzatzen du. «Zure lana ulertua da». Oso garrantzitsutzat du gure kulturaren nondik norakoak errespetatzea. «Ezin dugu transmititu astoak bezala hau horrela delako. Bestela, gertatzen zaigu Hondarribian eta Irunen gertatzen dena: 'neskek ezin dute ezin dutelako'». Transmisioa etengabe ari da aldatzen. «Oso zaila zait batzuetan interpretatzea». Transmisioan arteak norberari iristen zaion zerbait izan behar duelakoan da.

Kanpora joandakoan oharatu zen Euskal Herrian bazirela forma teatralak. «Herrian zau-

denean ez duzu ikusten forma horiek teatralak direnik, eta are eta gutxiago gizarte moderno hau folklorea era erdeinuzkoan hartzen ari denean. Hori lau astok egiten duten gauza balitz bezala. Eta ez da. Herri baten jakintza, herri baten dinamika... dena da». Lipusen irudiko, gizartea ez da konturatzeko nola globalizazioa hori «suntsitzen» ari den. Kanpora joandakoan deskubritu zuen: «Guk gure kodeetan galdu duguna beste kulturatan oraindik existitzen dela deskubritu nuen».

Transmisioak bizirik jarraitu dezan, «ezinbestekoa» da guru batzuk egotea. «Transmisioa kate horiek emango dituzten guruak behar dira. 'Gu'-k iluntasuna esan nahi du; 'ru'-k uxatzea. 'Iluntasuna uxatzen duena' da gura, beraz. Hau da, arte baten, ofizio baten bidea erakusten dizuna. Gai horiek Ekialdean mantendu egin dira. Antzerki tradizional guztiak mantendu egin dira, baina Mendebaldean aktoreak ez dituzte transmititzen bere jakintzak». Antzerkia azkenean ahozko-

forma dela ebatzi zuen. «Guk ez badugu euskaraz espresatzen dugun euskal antzerkia, zein parametrotan hitz egingo du herriak era sinboliko batean?».

Azken urteetan hori izan du obsesio, eta horretarako estruktura eraiki nahi izan ditu. Euskal Herrian eta mundu zabalean jasotako esperientzien eta ikasgaien ondoren, Artedrama euskal laborategia sortu zuen: «Arte eszenikoen plataforma teatro nazionala eraikitzeko». Euskal Herrian halakorik ez dagoenez, Huts Teatroa jarri zion antzerki konpainiari izena.

Antzerkigintzako kideek diskurtsoarekin bat egingo luketen galdetuta, gauza asko ulertuko lituzketela erantzun zuen. «Hori aberastasuna ere bada. Nik beti esaten dut teatroak eduki beharko lituzkeela formula guztiak». Gutxi egingo ikasketak, ikerketak eta esperientzia zabalek, gutxi garatutako diskurtso politikoa da Lipusena euskal antzerkigintzarako eta Euskal Herriarako. Lipusen drama pertsonala. «Drama»-k «ekintza» adierazi nahi du.



Gorka Zozaia
Kimikaria

Etorkizunera itzulera

Urte berri on, ezer baino lehen! Letra hauek idaztean oraindik 2014a den arren, nolabait etorkizunera bidaiatzea posible eginez, derrigorrezko mezua doa ezeren aurretik. Urtekariek hamaika gertakari politiko, ekonomiko eta sozial jasoko dituzte atzean utzi berri dugun epealdiaren bilanean. Ziur harrituko garelako bere oparotasun eta sakontasunarekin, den-dena, eguzkiari bira bakar bat eman diogun bitartean eman delarik. Zientzia komunitateak Rosetta espazio-misioa hartu du urteko gertakari nagusi gisa (lehen aldiz "Nature" eta "Science" aldizkariek bat eginda gainera), kometa bat horren gertutik aztertzeke gai izana ospatuz. Ez da gutxiagorako, gainera, Eguzki Sistema sortu zenetik gutxien eraldatu diren astro horiek baitira Lurrera ura eta materia organikoa (eta apika bizia bera) nondik heldu ote ziren argitzeke gakoak, eta lortu dena 2004an Lurretik jaurtiki zen gailu bat bertan pausatzea eta bertatik bertarako informazioa bidaltzea izan baita.

Goizegi da, dena den, etorkizunera areago joateko, eta hurrengo eguzki-bira 2015. eguzki-bira izanik (tira, justu letrok idazten ditudan egunean ospatzen ei dugun jaiotza hori erreferentzia hartuta) derrigorrean egin behar dut etorkizunera itzulera. Izan ere, urratu berri dugun 2015ak ekarriko duenaz duela 30 urte inguru idatzi zen dagoneko "Back to the Future" trilogia gogoangarrian. Biziki gustatu zitzaidan zientzia fikziozko istorio hura eta ondo baina hobeto gogoratzen dut bigarren filmean etorkizuna nola marrazten zuten eta zein urruna egiten zen "2015" idatzita ikustea bera! Ordutik, "flozo kondentsadorerik" eskura ez eta pazientziatzat itxaron behar izan dut Marty McFlyren moduko "aeropatin" bat eskuratzeko. Txantxa dirudi, baina, hain zuzen ere, 2014ak eman duen asmakizunetako bat izan da hori: irudian jasotzen dudana gailua, indar elektromagnetikoz ibiltzen den patina, eta noski, funtzionatzeko azpian kobrezko gainazal bat behar duena. Auto hegalariek itxaron egin beharko dute!

Egia esan, harrigarria da 80ko hamarkadaren hondarrean egindako gidoiak zenbat hurbiltzen diren egungo errealitate. Eguratsaren gaineko uneko informazioa darabilte, identifikazio polizialerako ez ezik hatz markak ateak ireki edota ordaintzeko erabiltzen dira, koiznatzeko labe bakar bat eta segundo gutxi batzuk besterik ez dira behar, aspertzearainoko telebista kate pila daude... Hori bai, badago inondik inora asmatzen ez duten detaile bat, biziki deigarria egiten zaidana: Martyren seme-alabek buruko moduko bat dute, begien aurrean pantaila bat duena, eta, etxeko telefonoak jotzen duenean, bien gailuek dir-dir egin eta «aita zuretzako da» esaten dute. Gidoilariak telefonoaren ordutxo erabilerari etorkizuneko kutsua ematen diote, baina errealitateetik urrun: ez dute egungo mugikorren logika bera usaindu ere egiten! Hori gertatzea, noski, normala da, baina deigarria egin zait eboluzioaren (garapenaren) izaera materialistaren adibide garbia delako: ez dago ideia bat lehendabizi eta horren gauzatze materiala gero, baizik eta alderantziz. 80ko hamarkadan dagoeneko baziren urruneko komunika-

zio gailuak, Bigarren Mundu Gerran sortu zirenetik, XX. mendean zehar garapen handia izan baitute, baina garai horretan oraindik komunikazio jakinetarako erabiltzen ziren soilik. Mende amaierarako, aldiz, oso teknologia eskuragarria da, berehala hedatzen da, eta, ohartzera, mundu guztia identifikatzen da bederatzizko zifrako zenbaki batekin. Errealitate material horren aurrean, jendeak bere joera komunikatiboa aldatu egiten du, etxeetara deitzeari uzten dio eta ideia berri bat finkatu egiten da, hamarkada bat lehenago imajinatzerik ere ez zen ideia bat: pertsona bat = telefono bat.

Etorkizunera begira jartzen naizelarik, susmoa dut egun imajinatzerik ez dugun ideia eta errealitate berri asko direla heltzear (heldu behar direla) eta ez gaudela oraindik horiek pentsatzeko tenorean. 2015 honetan, murgildurik gauden "garai interesgarrietan" sakontzen jarraituko dugu eta espero dudana da berandu baino lehen ideia berri horiei bide emateko, gaurtik esperientzia praktikoak, materialak, biderkatzeke gai izatea eta denbora gutxiago galtzea auto hegalarietan pentsatzen. Urte berri on, beraz! •



«Aeropatina» da 2014ak eman duen asmakizunetako bat.

GAUR8

{ koaderno } Laura Mintegi

Errelatoaz

L ehengo egunean jakin nuen beheko pisuko auzokoari neba hil ziola ETak. 1985etik bizi gara etxe berean eta egun hauetan jakin dut gertatzen hori. Zer pentsa ematen du. Orain egun batzuk matxura eduki genuen etxean eta teknikaria etorri zen gurera. Pisu guztietara aspaldi etortzen denez gu guztion berri zehatza du. Eta ezustean, halaxe esan zidan: «Lolarekin (asma dezagun izen berria) atarian egon nintzen egun batean zu sartu zinen eta joan zinenean Lolak esan zidan, 'Laurak ez daki, baina ETak neba hil zidan'».

Auzokideen artean egon daitekeen harreman hobere-na dugu Lolak eta biok, elkarri etxeko giltza uzteraino ezustea dagoenerako. Gogoratzen dut ez ziola batere graziarik egiten "Vaya Semanita"-ko esketx batek, Salamancako Sanchez familiaren inguruan aritzen zena, seme bat "charaina" eta beste semea "de la ETA" zituena, palestin-
noa eta guzti. Lolari esaten nion barre pixka bat egin behar genuela gure tragediaz, eta parodia horietan denok ikusten genituela erredikuli-zatuta gure usteak.

Azken bi urteetan ere sarri egin dugu topo eskaileran edo igogailuan, eta lasai asko mintzatu gara nire lanbide berriaren kariaz Gasteizera egin beharreko kilometro mordoaz. Gure harremana, haatik, ez da batere mingos-tu, beti bezain hurbila eta gozoa izan delako.

Gure belaunaldia lubakietan jaio zen, aurreko belau-naldiko irabazleen eta galtzaileen oinordekoak garelako. Gure historian borrarero bihurtu dira biktimak, eta bikti-ma berriak berriz bihurtu dira borrarero hurrengo belau-naldikoentzat, gurpil zoro bati lotuta baleude bezala.

Lubakietan urte mordoaz bizi ondoren, zauriak sendot-zea eta elkarguneak sortzea egokitu zaigu garai haue-tan. Nola edo hala denok gureganatu beharko genuke biktima bezain borrarero izan garela une batean ala beste-an, eta gutariko inor ez dela libratzen aitortzetik sentsi-bilitate handiagoa sentitu dugula batzuen oinazeaz eta askoz ere sentsibilitate gutxiago (edo bat ere ez) hurkoar-en minaz.

Erreparazioa, ordea, elkar ezagutzetik dator, hurkoa errekonozitzetik. Gaur-gaurkoz oraindik ez da eman le-hen pausua (biktima diren guztien inbentarioa osatzea,

oinazearen diagnosi globala egitea, datu objektiboak ze-rrendatzea) eta exijitzen ari da pausu bat gehiago ema-tea, barkamena eskatzeraino alegia.

Biktima batzuen exigentziek gehiago dute erasotik konkordiatik baino. Errelato partziala idazteko asmoz erabiltzeko dira, eta ez armistizioa burutzeko. Alderdi eta elkarte batzuek egiten duten minaren erabilpen lizunak gogoia kentzen du aurrera egiteko. Eta, hala ere, egin egin behar da, bidea ez baita ukatzea zenbat sufritu duten ba-tzuek, baizik eta onartzea sufrimendua eremu zabalean hedatu dela eta era askotakoa izan dela.

Entzun nahi nioke Lolari bere ahotik kontatzen neba-ren kontua, eta jakin nahi nuke zergatik ez didan kontatu urte hauetan guztietan, zeri zion beldurra. Eta agian nik ere kontatuko nioke gurean izan diren beldurrak eta es-tualdiak. Bizi izan duen infernua entzun nahi nuke, eta nik ere azalduko nioke nire infernua oraindik ez dela

Denok gureganatu beharko genuke
biktima bezain borrarero izan garela uneren
batean, eta gutariko inor ez dela libratzen
aitortzetik sentsibilitate handiagoa
sentitu dugula batzuen oinazeaz

amaitu, eta bisita bakoitzetik natorrenean ezinegonak gain egiten didala. Esan eta entzun beharko dugu, norbe-rak osa ditzan kaleidoskopiotik falta zaizkion angeluak.

Ez dut uste nire barkamena behar duenik, ezta bar-kamen eskaerarik egingo lidakeenik. Nik ere ez nioke konturik hartuko egindakoagatik. Uste dut nahikoa dugula ezkutuan genuena azalera ateratzea, begietara begiratuta.

Errelatoa ahoz helduko da, mikroistorioek harilkatuta. Egiazko errelatoa ez da sortuko bulego batean, idatzizko dekretu batek jasoa. Kontaketa, benetakoa, kontakizune-tatik dator, norbanakoen ahozko testigantzatik.

Errelatoaren zati txikitxo bat gure etxe azpiko taber-nan sortuko da, Lola eta biok jarriko garenean mahaia-ren bueltan elkarri entzuten besteak esan nahi diona. Edozer dela ere. •

«Euskaraz agertzea
bai olerkiak bai
liburuak hautu bat
izan da, Seaskan eta
ikastoletan irakasle
izatea bezala.
Hautu militante
bat izan da»

Baigorriko Ameztoia baserrian sortu zen eta txikitan Angelura joan zen bizitzera. Seaskako lehen irakasleetako bat izan zen eta bizitza guztian irakaskuntzan aritu da. Idazle gisa saiakerak, eleberriak eta poesiak plazaratu ditu Maiatz eta Gatzuzain argitaletxeetan. Ipar Euskal Herriko euskal hedabideetan kolaboratu izan du.

Ipar Euskal Herriko gizartean zeresan handia sortu duen liburu bat argitaratu berri du orain bere lanetan antropologia, euskaltzaletasuna eta feminismoa uztartzen dituen irakasle eta idazleak. Hain zuzen ere, Bidasoaren bi aldeak anitz ezberdintzen dituen gai bat hartu du hizpide: emakumeen abizenak. Hala, Estatu frantsesean emakume ezkonduak senarraren abizena hartzeko duten ohiturari buruzko saiakera bat eta euskal emakumeen historiari buruzko beste idatzi bat elkartu ditu “Bi saiakera emazteen izenean” izenburupean.

Ipar Euskal Herrian ezaguna zara liburuak idazteagatik, baina baita Seaskako irakaslea izan zarelako ere, erraza ez zen garai batean gainera. Zer ekarri dizu zuri esperientzia horrek?

Seaskan sartu nintzen 1970ean; bigarrena izan nintzen Libe Goñiren ostean. Egoera biziki zaila zen: ez genuen dirurik, ez genuen ezagutzarik, ez genuen lokalik... Zailtasun anitz genituen. Emeki-emeki plantan ezarri ditugu euskararen irakaskuntzaren oinarriak Iparraldean. Segitu dut bizi guztia euskara irakasle izaten, gero sare publikoan baina beti euskara irakasten.

Antropologia ikasketak ere egin zenituen Bordelen. Hainbat gai jorratu dituzu eremu horretan ere, ezta?

Unibertsitaterako landu nuen lehen gaia Baigorriko etxeen izenekin lotuta zegoen, Erdi Arotik gaur egun arte. Orduan ginen 1980an, eta etxe izenen eta aldakuntzen bitartez ikertu nituen zeintzuk ziren mentalitate aldakuntzak. Aspalditik dut interesa etxe izenen eta deitu-

ren gainean. Ondorioz, argitaratu nuen Gatzuzainen 2000. urtean liburu bat gai horri buruz: “Euskal deituren kronikak”.

Euskarara eremu ezberdinetatik hurbildu zara, irakasle eta idazle gisa. Euskararekiko maitasunaren ondorio izan da edo idazlearen beharra?

Euskaraz agertzea bai olerkiak bai liburuak hautu bat izan da, Seaskan eta ikastoletan irakasle izatea bezala. Hautu militante bat izan da. Nerabe garaitik idazten dut; hastapenean frantsesez idazten nuen, ez nekien euskaraz idazten. Momentu batean, euskara irakasten hasi nin-

tzenean, hasi nintzen ere euskaraz idazten. Beraz hautu bat izan da niretzat, eta egun bietan egin dezaket.

Zure azken liburuan deituren gaia jorratu duzu berriro, baina beste ikuspegi batetik, emazteen deituren ikuspegitik. Zer da liburu horretan kontatzen duzuna?

Maiatzek agertu didan azken liburu hau deitzen da “Bi saiakera emazteen izenean”, beraz, bi testuz osatua dago. Lehenbizikoa da saiakera bat, “Aitarene, senarraren ala amaren izena” deitzen dena, eta bere gaia da Frantziako ohitura bat, zeinetan

emazte ezkonduak senarraren deitura hartzen duten; nahiz eta ez den legerik horretara behartzen dituenik, gehienek usaia hori segitzen dute.

Beraz, ohitura bat da lege bat bezala funtzionatzen duena, eta emazte gehienek hori onartzen dute. Batzuetan oharkabean desjabetzen dira emazteak bere sortzeko deituraz, eta, gainera, frantses legeak dio sortzeko deitura dela legala den bakararra Frantzian gizonentzat eta emazteentzat. Sortzeko deitura atxiki nahi duten emazteek zailtasunak dituzte haien nahia errespetarazteko, zeren eta anitzetan ez da lege hori ezagutzen



«Emazte batzuk entseatzen gara gure deitura atxikitzen, eta behin eta berriz hiltzen gaituzte sinbolikoki»

Frantzian; eta ez bakarrik herri-tarrek, administrazioek eurek ere ez dute ezagutzen.

Edozein bulegora joaten zare-larik beti nahi dizute inposatu senarraren deitura zurearen or-dez. Eta ondorioz oraindik es-kubide bat zangopilatua da Frantzian, norberaren izenare-na; kasu horretan emazteena, gizonek ez baitute horrelako arazorik. Hori agerian uzteko eta salatzeko idatzi dut saiakera hau, esperantzarekin egoera anormal hau aldatuko dela. Tes-tuaren amaieran ikusten ahal dira Frantziako lege guztiak, non garbi ikusten den zein den legea eta ohitura ez dela legea.



Argazkiak: Sylvain SENCRISTO

MARIKITA TAMBOURIN

IRAKASLE ETA IDAZLEA

Estatu frantsesean emakume ezkondu-
en senarraren abizena hartzeko duten
ohitura ezbaian jarri du Ipar Euskal Herriko
jendartean zeresana piztu duen «Bi
saiakera emazteen izenean» lanarekin

Lege horren errespetua gara-tzen ari dela iruditzen zaizu edo emazteek ohitura segitzen dute oraindik?

Uste dut kontzientzia pixka bat gehiago badela, nahiz eta ez den gauza handirik egina emazteak informatzeko horretaz. Nik nire ikasleak informatzen nituen klaseetan gai horretaz, baina ez dut uste irakaskuntzan hori ai-patzen denik; beraz, gehienek ez dakite. Dakitenean ere, oraindik ikusten ditut emazte gazteak ohitura segitzen dutenak eta ez-kondu orduko senarraren deitu-ra hartzen dutenak.

Bistan da lehen askoz zabal-duagoa zela, eta biziki gutxi zi-rela ohitura hori segitzen ez zu-ten emazteak, beren nortasuna beren bizi guztian atxikitzen zu-tenak. Orain, beharbada, badira gehiago, baina arazoa da Fran-tzian ez dugula horretaz estatis-tikarik, ez dakigu zenbat emaz-tek aldatzen duten deitura eta zenbatek atxikitzen duten ez-kondu eta gero. Ez dakigu ezer horretaz.

Zergatik uste duzu gaur egun emakumeek segitzen dutela senarraren abizena hartzen?

Hain zuzen, ez dut arrazoirik ikusten orain. Zeren eta lehen bazen lege bat, Espainian ez de-na, non haurrek aitaren deitura besterik ez zuten ukaiten sor-tzean. Orain gauzak aldatu dira, zeren eta Frantzian 2001ean hasi dira legeak egiten hori al-datzeko, eta 2005ean aplikatu dira lege horiek eta orain lau hautu dituzte gurasoek, lehen ez zituztenak. Lehen emazte ba-tzuek zioten senarraren deitura hartzen zutela beraien haurren deitura bera ukan nahi zutela-ko, baina orain ez da batere arrazoirik; hala ere, jarraitzen dute hori egiten batzuek.

Emazteek abizena galtzean nortasuna galtzen dutela erran duzu. Horrela sentitzen duzu zuk?

Bai, 1980ko hamarkadatik nik ikertu ditut izenak, eta biziki barneratua dudana gai bat da. Gu-re izena da gure identitatea, bai-na bada ere gure nortasuna, gure arbasoengandik heldu zaiguna,

gure familiarena da, pertsonala da. Gure senarraren deitura ez da gurea, berea baizik.

Ez dugu izena bakarrik gal-tzen, nire ustez. Hori biziki ga-rrantzitsua den zerbait da, per-tsonen identitateari buruz lege batzuk badira, eta, Frantzian, legearen arabera ezin da identi-tatea aldatu bizi guztian zehar. Beraz, identitatea galtzeak nire ustez beste ondorio batzuk ba-ditu hori baino barnagoak dire-nak, baina nire ustez ez da psi-koanalistarik edo psikologorik hori aztertu duenik Frantzian inoiz. Zeren hor ukitu dugu nortasuna, deitura aldatzean.

Zu ezkondu zinelarik ez ze-nuen abizena aldatu, zurea atxiki zenuen.

Bai, nik banekien gaztetatik le-ge hori bazela eta ez nuela dei-tura aldatzerik beharko. Nik ez dut inoiz aldatu, nire paper ofi-zial guztiak sortzeko izenare-kin atxiki ditut, baina proble-ma da etengabe, bizi guztian, noizean behin administrazioa-rengandik, botere publikoen-gandik, bulegari batengandik inposatzen dizutela senarraren deitura. Hori eskubide urraketa biziki gogorra da, baina, diru-dienez, emazte gehienek ez du-te horrela bizi, ez dira ohar-tzen, edo ez dute aipatzen.

Beste batzuek nik bezala bizi dute, eta entseatzen dira beren deiturak atxikitzen. Niri egiten dit izugarrizko efektua perso-nalki. Iruditzen zait noizbait sortua naizela, baina jadanik ez naizela, hila naizela. Behin eta berriz hiltzen gaituzte sinboli-koki, nik horrela sentitzen dut.

Eta kanpainarik egiten al da hori aldatzeko?

Inoiz ez da aipatzen, hain zuzen horregatik saiakera hau egin dugu nire editorearekin. Gai hori aipatu nionean erran zi-dan biziki interesgarria dela, eta prest zela liburu bat agerra-razteko. Liburu hau atera dut egoera hori aldarazi nahian.

Abizenak aipatu ditugu, bai-na euskal emaztearen gaia ere jorratu duzu liburu berri honetan.

«Edozein bulegora
joaten zarelarik beti
nahi dizute
inposatu senarraren
deitura zurearen
ordez. Eta, ondorioz,
oraindik eskubide
bat zangopilatua
da Frantzian»



Bai, hori da, bi saiakerak elkarrekin ezarri nahi izan ditugu editorearekin, hain zuzen ere ohartarazteko emazteen inguruko ohiturak edota legeak Frantzian biziki atzerakoiak direla, eta, aldiz, Euskal Herrian askoz aurrerakoiagoak ginela betidanik. Gure foruek, gure lege zaharrek, ez zuten inolako bereizkuntzarik egiten gizonen eta emazteen artean; erran nahi du biek eskubide berak ziztuztela, beraz, emazteak ez dira sekula eskubiderik gabe izan Frantzian edo Espainian ziren bezala, non erromatar lege bat aplikatzen zen eta lehenentasuna ematen zitzaion familiako aitari.

Euskal Herrian ez ginen horrela bizi, beste ohitura batzuk bagenituen. Adibidez, ondorengoak egiten zen sexu bereizketarik gabe, lehen sortuak ukaiten zuen etxaldea edo baserria, izan neska edo mutiko. Eta hari lotuak ziren eskubide guztiak. Etxe izenez deitzen ziren lehenez jendeak, etxean gelditzen zen neska, ondorengoak ukaiten zuena, eta bere etxe izenez deituak ziren bere haurrak, ez aitaren izenez.

IBILBIDEA

Baigorriko Ameztioa baserrian sortua, haurra zela joan zen Angelura bizitzera. Seaskako lehen irakasleetako bat izan zen Tambourin, eta, bizitza guztia euskarazko irakaskuntzan emateaz gain, idazlea eta lpar Euskal Herriko komunikabideetako kolaboratzailea ere bada.

Legeez gain euskal emaztearen beste arlo batzuk ere landu dituzu liburuan?

Bai, bada mitologia, idatzi zaharrrak, erlijio katolikoaren eragina eta horren ondorioz nola emakume batzuk isilak eta umilak bezala kalifikatuak diren. Aipatzen dut ere sexu askatasuna eta emazte talde berezi batzuk, erakusteko emakume horiek guztiek ze eragina ukan duten euskal gizartean, eta, beraz, euskal emazteak ez bakarrik lege zuela onartua berdintasuna, baizik eta eragina ukan duela betidanik euskal gizartean.

Historian zehar, nola definituko zenuke zuk euskal emaztea?

Zaila da, definizio desberdinak izan baitira garaien arabera. XIX. eta XX. mendean ez zen berdina, XX. mende erditik honat gauzak aldatu egin dira... Nire ustez betidanik bizi izan da askatasunean euskal emaztea, ez da menpekotasunean bizi, eta gaur arte iraun du horrek.

Gaur egungo euskal emaztea indartsua sentitzen duzu?

Nik bai, pertsonalki heldu naiz familia batetik non nire ustez

nire ama eta seguruenik aitzinekoak ere feministak ziren hitza ezagutu gabe. Nire etxeko genealogia egin dudanean mila laurhun eta zerbaitetan hasten dena, ohartu naiz nire sortetxean kasik beti, belaunaldiz belaunaldi, salbu hiru kasutan, emazteek ukan dutela oinordekoa, beraz, emazteak ziren etxeko jabeak nolabait. Horrek, bistan denez, mentalitate bat ekartzen du, baina ez dut pentsatzen hori kasu bakarra izan denik, hori baino askoz zabalduagoa den gauza bat zen. Baina oraindik ikerketarik ez da kasik horri buruz, nehork ez du ikertu hori, bistan denez emazteen gaia baita. Uste dut horrek merezi duela ikerketa bat ikusteko noraino zabalduta zen emazteen oinordekotza, hobeki ulertzeko zer zen euskal gizartea lehenago.

Gaur egungo euskal emazteak zeintzuk ditu bere borrorak?

Oraindik bada zer egin, berdintasun osoa ez dugu lortu, ezta parekotasuna ere. Iparraldean badugu deitaren arazo hori. Emazteen kontrako sexismoan badira kasu larriagoak ere non emazteak joak eta hilak diren.





Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:





GAUR8

Ez, eskerrik asko

Ekoizpen ekologikoaren ikurrerako bat da Genetikoki Eraldatutako Organismoen (GEO) erabilera debekaturik dagoela. Ez da onartzen beraien ereintza, ezta erabilera ere, izan abereen elikaduran, izan giza-kion kontsumora zuzendutako elikagaien eraldaketa prozesuetan (ardogintza ekologikoan, esaterako, ezin daitezke genetikoki eraldatutako legamiak erabili). Horrenbestez, albiste pozgarria jaso zuen elikadura ekologikoaren sektoreak pasaden abenduaren 3an. Egun horretan, Ana Oregi Ingurumen eta Lurralde Politikarako sailburuak adierazi zuen Euskal Autonomia Erkidegoa "Transgenikorik gabeko gunea" izendatua izan dadin eskatuko diola Madrilgo Exekutiboari. Oregi sailburuak gehitu zuen Jaurlearitzaren apustua dela ekoizpen eredu tradizionalari, ekologikoari eta kalitatezkoari lehentasuna ematea. Adierazpenak garapen ekono-

mikorako eta lehiakortasunerako komisioan egin zituen, EH Bilduko legebiltzar-kideek «zein izango da Eusko Jaurlearitzaren jarrera transgenikoen gaian?» pausatutako galderari erantzunez. Bitxia dena da Jaurlearitzak eskakizun hori egun Europako transgenikoen ekoizle nagusia den Estatu espainiarrari egitea...

Jendarteak GEOak existitzen direla jakin zuenetik, eztabaida gogorrek inguratu dute gaia. Aldekoek diote gizateriaren garapenean aurrerapauso handia suposatzen duela teknologia honek, medikuntzaren eta elikaduraren arloetan hobekuntza nabarmenak ekarriko dituela. Gaineratzen dute teknologia hau oso ikertua dagoela, eta elikagai transgenikoen osasunari kalterik ez diotela eragiten frogatua dagoela, teknologia hau giza-kion elikaduran erabiltzen hasi zirenetik hamar urte baino gehiago pasa direlako, eta ez delako antzeman GEOek sortutako osasun arazorik, ezta ingurumenari era-

gindako kalterik. Transgenikoen aldekoek erabiltzen duten beste argudio nagusia da hauek gabe «ezinezkoa» izango dela «munduko gosetuak elikatzea».

Demagogiaz betetako azken baieztapen horrek ematen du bidea GEOen kontrako jarrera sendotzeko: transgenikoak neurri gabe ingurumenean eta elikaduran sartu zirenetik, munduan gosea pairatzen dutenen kopuruak gora egin du (1.000 milioi lagunek baino gehiagok gosea pairatzen dute egunero), nahiz eta planetan ekoizten den elikagaien kopuruak biztanleria osoa 1,5 aldiz elikatzeko lain emango lukeen.

Gosearekin amaitzea ez da ekoizpen arazo bat, banaketa arazo bat baizik. Izan ere, GEOek egun duten helburu nagusietako bat da abere hazkuntzarako erabiliak izatea (soia transgenikoa da GEOrik zabalduena, eta abereen elikadurara ia eskusiboki zuzentzen da ekoizpen hori), ez gizakiak elikatzeko.

Bitartean, gizarte "garatuen" eredu den eta haragian oinarritzen den dieta hiperproteikoak obesoen kopurua handitzen du etengabe, gaixotasun horrekin lotutako osasun arazoekin batera. Aldi berean, GEOen ekoizpenean beste arazo larri batzuk sortzen diren ebidentziak badaude. Mundu mailan nekazaritza ekoizpen handienetakoa daukan Argentinan, ekoizpenaren %50 abereen elikadurara bideratutako soia transgenikoa da, neurri handi batean Europara esportatzen dena. Argentinako Cordoba, Entre Ríos eta Santa Fe lurralde nekazarietan, alergiak, asma, abortuak, jaio berrien malformazioak, hipotiroidismoa edota minbizia bezalako osasun arazo larriak areagotu direla ikusi zuen mediku eta zientzialariz osatutako talde batek, 2010 eta 2013 artean egindako ikerketa epidemiologikoan. Azterketak transgenikoak erein ziren lehenengo urtearen (1999) eta 2013. urtearen arteko epea ikertu zuen. Egileek on-

NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA



GAURB

dorioztatu dute gaixotasun horiek areagotzearen arrazoia soia transgenikoak ekarri duen glifosato herbizidaren erabilera masiboa izan daitekeela.

Izan ere, soia transgenikoaren “onura” nagusia da herbizidak onartzen dituela. Alegia, ekoizpen ahalik eta handiena ziurtatu aldera, pozoia neurri gabe botatzeko aukera ematen duela... belar txarrek erresistentzia garatzen duten arte, bistan da (kasuak gertatu dira dagoeneko, bai Hego Amerikan eta baita Ameriketako Estatu Batuetan ere). Glifosatoaren ziurtasunari dagokionez, bai herbizida eta baita soia transgenikoa bera ere erabat segurua da ekoizten duen enpresaren arabera. Ingurumenaren kalterako ekoizpen eredu honek dauzkan ageriko eraginez aparte, Argentinako gertakariak bestelako iritzia sustengatzeko arrazoiak ematen dituzte.

ESPERIMENTUAK ARRATOIEKIN

Bide berean, 2012an, Gilles Éric Sérallini biologia molekularreko katedradunaren taldeak burutako ikerketa independenteak datu kezagarriak argitaratu zituen. Bi urtez, laborategiko 200 arratoi soia transgenikoz elikatu zituzten. Glifosatoaren toxikotasuna ere aztertu zuten. Jasotako emaitzen arabera, heriotza goiztiarrak, tumore gaiztoak eta gibel zein giltzurrunetako arazoak areagotu egin ziren esperimientua aurrera joan ahala. Herbizidari dagokionez, eragin toxikoak topatu zituzten arratoietan, egungo araudiak onartzen duen muga

baino 1.000 aldiz kontzentrazio txikiagoan. Zientzialari frantziarrak kritika gogorak entzun behar izan zituen, akatsak eta profesionaltasun falta egotzita, publikatuta zeukan artikulua erretiratzera heldu arte. Beste aldean, lankideen babesa ere jaso du Séralinik, honen profesionaltasuna azpimarratuz, eta enpresek bere irudia zikindu asmoz egindako esku hartzeak salatuz. 2014an, Séraliniren artikulua berriz ere publikatua izan da, beste aldizkari zientifiko batean.

Soka luzea dauka transgenikoen gaiak. Nekazaritza ekologikoaren ikuspegitik, naturaren aurka doan eta, ondorioz, planetaren zein gizakion osasunari kalte egiten dion ekoizpen eredu bati jarraipena emateko tresna besterik ez dira transgenikoak. Errealitate gordinak erakusten du GEOek ez dutela agindutako promesetatik bat bera ere bete, eta, ezereen gainetik, elikadura negozio hutsizateko pentsatuta daudela. Aurrean, ekoizpen eredu agroekologikoak, lehengai eta energia erdiarekin, nekazaritza kimiko-intentsiboak baino elikagai kopuru handiagoa ekoizteko gaitasuna erakutsi du. Transgenikorik ez kontsumitzeko erarik errazena esku-eskura daukagu: kontsumitu elikagai ekologikoak.

ENEK

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua

Euskara paparrean

Amagoia Mujika

Eta zuk, non daramazu? Batzuek askariaren poltsan

daramate, eta juxtu-juxtu erabiltzen dute parkean haurrari askaria emateko orduan (beste haurren eta gurasoen aurrean). Hortxe, platanoaren eta jogurtaren ondoan. Batzuek mingainaren puntan daramate, baina puntaren puntan bakarrik. Lehen bizpahiru hitzak euskaraz, hortik aurrera, hitzak eta gogoetak atze-zeagotik ekarri behar direnean, ez die balio euskarak.

Eta batzuek, paparrean daramate. Berez ona da euskara harrotasunez paparrean eramatea, baina ez naiz horiez hari, euskara paparrean harrokeriaz daramatez ari naiz. Bai, esaterako katalanen aurrean bakarrik erabiltzen duten horiez. Haiek badute beren hizkuntza propioa, eta nahiko ondo zaintzen dute gainera. Horregatik badira katalanen aurrean euskara paparrean janzten dutenak, «guk ere badugu gure hizkuntza propioa e!» estiloan. Ez dakit ba oso sana ote den jarrera hori...

Horrelako bat baino gehiago ikusi ditut berriki, futbolaren aitzakian euskaldunak eta katalanak elkartu direla-eta. Aise harapatzen dira urtean behingo euskaldun horiek, tristeki erraz.

Tira, akaso ez da hain txarra sikiera urtean behin euskararen jabe izatearen harrotasunaz konturatzeko badira. Hasiera izan daiteke, gerora euskara beti jantzita eramateko; txanponetan, taberna batean kafea ordaintzeko; eskuetan, seme-alabei eskua eman eta bidean ibiltzeko; hatz puntetan, musika ekipoaren botoiak sakatzeko; eztarrian, larritasun momentuak hitzekin askatzeko; sabelean, haserretzeko; besoetan, euskaraz besarkatzeko; izarapean, plazererako; begietan, pozez edo tristuraz negar egiteko... denerako, benetan, denerako balio du euskarak. •

infraganti

LARA ARRUABARRENA



Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

Hasieran denbora-pasa baino ez zena, amets bihurtu zen ondoren, eta, azkenean, tenisa Lararen ogibide ere bilakatu da. 8 urte eskasekin erraketarekin lehenengo kolpeak jo zituenetik etengabeko gorakada izan du bere ibilbideak, eta, egun, 22 urte baino ez dituen arren, WTAko zerrendan 88. postuan dago eta munduko tenislari onenekin lehiatzen da.

Espainiako Txapelketak –banakakoa eta binakakoa– irabazi berri ditu Lara Arruabarrenak. Goi mailako tenislari guztiek bezala hegazkin eta hotel artean igarotzen du urteko zatirik handiena tolosarrak. Izan ere, tenis txapelketak munduko hamaika txokotan jokatzeko dira. Bere azken bidaie-tako batek, ordea, ezohiko helmuga izan du: Tolosa. Gabonetako hiru egun herrian eta familiarekin pasa ditu. Nahi baino gutxiagotan dauka bere sorlekura itzultzeko aukera, eta, hortaz, egun horiek behar bezala aprobetxatzea gustatzen zaio. «Oso denbora gutxi izaten dut Tolosan egoteko, eta bertan igarotzen ditudan egunak nire familia eta lagunekin pasatzea gustatzen zait», azaldu du. Denbora apur horren zati bat, gaine-

ra, guri eskaini digu. Lara ongi moldatzen da horrelako egoeretan. Emakumezkoen tenisak beste kirol batzuekin alderatuta oihartzun handia du eta ohituta dago kazetariekin hitz egitera. Azken urteotan bere bizitza erabat aldatu den arren, hankak lurrean mantentzen dituela eta betiko Lara izaten jarraitzen duela esan digu. Eta, egia esateko, oso pertsona umila, jatorra, gertukoa eta alaia da.

Gure arteko solasaldia gaztelaniaz egin dugu. Izan ere, Larak zazpi urte daramatza Bartzelonan bizitzen eta han ez du izan euskaraz hitz egiteko aukerarik. Ondorioz, hanka sartze dezente egiten dituela kontatu digu, eta nahiago duela gaztelaniaz mintzatu, gauzak aiseago kontatzeko. Amorrutia handia ematen dio Larari egoera horrek: «Ulertu dena ulertzen dut, baina hitz egiterakoan trabatu egiten naiz.

Txikitan ikastolako lagunekin euskaraz hitz egiten nuen, baina azken urteotan erabiltzeko aukerarik izan ez dudanez dezente galdu dut eta pena ematen dit. Orain, ahizpa Bartzelonan bizi da nirekin eta batzuetan euskaraz hitz egiten dugu, guztiz ez galtzeko. Ez dut euskara ahazterik nahi».

HOBETZEN JARRAITZEA HELBURUA

Tenis denboraldia hasi berria da eta Larak moralez gainezka ekin dio sasoi berriari Espainiako txapelketak irabazi eta gero. «Ilusio handia egin didate. Gainera, Banakako Espainiako Txapelketa sekula irabazi gabe nengo, eta, beraz, arantzatxo hori ateratzea lortu dut». Haatik, ez da bereziki jokatzeko gustatzen zaion txapelketa bat. «Espainiako Txapelketan oso urduri jartzen naiz. Irabazteko hautagai nagusietako bat izaten naiz beti,

partida gehienak hasiera batean ni baino maila baxuagoa duten aurkarien aurka jokatzeko ditut eta presio hori gainean edukita jokatzeko ez da erraza».

Arestian aipatu moduan, bidaia Lararen egunerokoaren parte dira ia-ia eta dagoeneko hasi du joan-etorrien maratona. Urtarrilaren 1etik Txinan dago urteko lehenengo txapelketa jokatzeko, eta hemendik aurrera denboraldi osoa lehiatzen pasako du. Denboraldirako jartzen duen helburua aurrerapausoak ematen eta hobetzen jarraitzea da. Momentu honetan WTA Emakumezko Tenislari Profesionalen Elkarteko zerrendan 88. postuan dago, nahiz eta 70. lekuan egotera ere iritsi den. «Aurreko denboraldia gorago amaitu nezakeela uste dut. Nire jokoa sailkapenak erakusten duena baino hobea dela iruditzen zait, eta ni horrekin geratzen naiz. Bideratuta nituen zenbait partida okertu egin zitzaizkidan eta hori garesti ordaindu nuen. Hala ere, nire jokoa gorantz egiten ari da eta hori da garrantzitsua».

Oraindik ikasteko gauza asko izan eta hobekuntza tarte handia duen arren, dagoeneko, meritu handiko lorpenak eskuratu ditu. Esaterako, 19 urterekin irabazi zuen Bogotan (Kolonbia) WTAko lehenengo txapelketa. «Hasi aurretik ez nuen imajinatu ere egiten, eta, hain gaztea izanda, horrelako txapelketa bat irabaztea ikaragarria izan zen. Badaude WTAko zerrendan ni baino aurrerago izan eta horrelako txapelketarik inoiz irabazi ez duten neskak, eta, beraz, ez da batere erraza maila horretako txapelketa bat irabaztea». Orduko hura ez da Kolonbian irabazi duen txapelketa bakarra, eta, ondorioz, leku kutuna da beretzat. «Hurrengo urtean Calin irabazi nuen beste txapelketa bat, nahiz eta maila baxuagokoa izan. Aurreko urtean ere izan nintzen eta banaka eta binaka irabazi nuen. Kolonbia niretzat leku berezia da, hara joaten naizen bakoitzean emaitza onak lortzen ditudalako», zehaztu du.

Dena den, egokitzapena ez da samurra izaten. 2.600 metrotik gorako altitudea du Bogotak eta

horrek eragin nabaria du kirola praktikatzeko orduan. Hala, txapelketa hasi baino egun batzuk lehenago joan behar izaten dute hango berezitasunetara egokitzeko. «Hasieran gaizki pasatzen da. Arnasa hartzea ikaragarri kostatzen da eta azkarrago nekatzeko zara. Gainera, pilotei askoz gehiago kostatzen zaie lurrera erortzea; badirudi frontoian jokatzeko ari zarela, pilota guztiek ihes egiten dute eta. Momentu horietan erraketa puskatzeko gogoa ematen du. Gero, pixkanaka ohitu egiten zara. Nire jokoa efektuetan oinarritzen da eta gainontzekoak baino errazago moldatzen naiz baldintza horietara. Indarra baliatuz jokatzeko duten tenislariak, aldiz, gehiago kostatzen zaie».

LANA ARRAKASTAREN GILTZA

Egun goi mailako tenislaria da Arruabarrena, baina horretarako lana gogotik egin behar izan du 8 urterekin tenisean jokatzeko hasi zenetik. Donostiako Ondarreta hondartzaren alboan kokatutako tenis klubean eman zituen lehen urratsak. Udaran joan zen klaseko lagun batekin beste kirol berri bat probatzeko asmoz, eta, gustatu egin zitzaionez, jarraitzea erabaki zuen. Garai hartan, kirola egitea eta ondo pasatzea besterik ez zegoen bere buruan. Halaber, txapelketa batean parte hartu zuen lehenengo aldiak ez zion esperantzarako tarte handirik eskaini. «6-o eta 6-o galdu nuen. Sekulako egurra eman zidaten! Lehen txapelketa jokatzeko inoiz ez da samurra eta garrantzitsua egoera horien aurrean ez gogogabetzea da», gogoratu du barrez.

Eta horixe izan zen, hain zuen, egin zuena. Larak gustatzen zitzaion kirola praktikatzeko jarraitu zuen eta apurka-apurka bere maila hobetuz joan zen. Aurrerapauso horiekin Estatu mailako txapelketak jokatzeko eta bere dohainen berri ematen hasi zen. Etengabeko garapen hori ez zen oharkabea pasa eta Espainiako Tenis Federazioaren deia jaso zuen 15 urte zituenean. Bartzelonara errendimendu altuko zentro batera joateko beka bat eskaini zioten. Baietza ema-

teak familia eta lagunak albo batera utzi eta bizitza berri bati hasiera ematea zekarren. Hain gaztea izanik ez zen erabaki erraza izan, baina aukera paregabea zen tenisean hobetzen jarraitzeko eta Bartzelonara joatea erabaki zuen.

Egun batetik bestera gauza mordoa aldatu ziren bere bizitzan. «Nahiko erraz egokitu nintzen bizimodu eta hiri berrira. Segituan egin nituen lagunak eta gauzak ondo atera zitzaizkidan hasieratik. Nire gurasoen tzat, berriz, zailagoa izan zen. Beraientzat gogorra zen ni urruti izatea», onartu du tolosarrak.

Bartzelonako entrenamenduek ere ez zuten zerikusirik Donostiakoekin. Zentroa goi mailako kirolariak prestatzera bideratuta dago eta exijentzia maila oso altua da. Eguna tenisaren inguruan antolatua zegoen, eta, egunero-egunero, lauzpabost ordu entrenatzen zituen. Goizean bi orduz jokatzeko tenisean. Arratsaldean beste ordu batez aritzen zen pista, eta, amaitzeko, alor fisikoa lantzen zuen ordu eta erdi inguruz. «Bartzelonara iritsi nintzenean entrenatzen genuen nesken multzotik maila baxuena zuena ni neu nintzen, baina hori akuitu zen niretzat. Haiengandik ikasten eta etengabe hobetzen saiatzen nintzen, eta, lan asko eginda, maila berean jartzea lortu zuen. Testuinguru hark mesede egin zidan», gogoratu du.

Bestalde, tenisean jokatzeko gain, ikasketak ere aurrera atera behar zituen. Zentzu horretan, laguntza handia jasotzen zuten. Entrenamenduak eta ikasketak uztartu ahal izateko ordutegiak egokitu egiten zizkieten zentroko kirolariei eta entrenatzen ez zuten tarteetan joaten ziren klaseetara. Horrek ikaragarritzko sakrifizioa eskatzen zuen, baina Larak argi du Bartzelonara joatea mugari izan zela iritsi den lekura iristeko, eta ez da damutzen: «Bertan jaso nuen laguntza gabe ezinezkoa izango zatekeen gaur naizena izatea. Tenisean jokatzeko garestia da. Entrenatzaileak, bidaiak... hori guztia Espainiako Federazioak ordaintzen zidan eta laguntza



Stephen DUNN | AFP

hori ezinbestekoa izan zen. Zortedun sentitzen naiz aukera horregatik eta asko eskertzen diet nire alde egindako apustua».

EMAITZARIK ONENAK, LUR GAINEAN

Tenislari bakoitzak bere ezaugarri propioak izaten ditu. Arruabarrenak, esaterako, modu honetan definitzen du bere burua: «Jokalari azkarra, borrokalaria eta eskuin indartsukoa naiz». Ezaugarri horien arabera, hobeto edo okerrago moldatzen dira tenislariak lurzoru batzuetara edo besteetara. Izan ere, gauzak erabat aldatzen dira lurzoruaren arabera. «Nik lur gainean lortu ditut emaitza onenak, baina pista azkarra ere gogoko dut. Gainera, gaur egun emakumezkoen txapelketa gehienak pista azkarrean jokatzeko dira. Belarrean oso gutxi jokatzeko dugu, 3-4 aste inguru urtean. Eta, beraz, espezialista handiak ez direnak edo sake oso ona ez dutenak, beste-rik gabe joaten dira jokatzera,

15 urte zituela, Espainiako Tennis Federazioak beka bat eskaini zion Bartzelonara errendimendu altuko zentro batera joateko eta bere kirol ibilbidean pauso handia eman zuen

Egun goi mailako tenislaria da, munduko onenen zerrendan sartzea lortu du eta bere bizitza munduko toki oso desberdinetan jokatzen diren txapelketen jiran antolatuta dago

prestaketa oso berezirik egin gabe, salbuespen moduko bat besterik ez delako», azaldu du.

Bestalde, ez da gauza bera bakarka edo binaka jokatzeko. «Binaka jokatzen duzunean zurea da erantzukizun guztia eta zureak arazo guztiak. Binaka jokatzen duzunean, aldiz, kideak momentu txarren bat baldin badu, animatu egiten duzu, eta, alderantziz. Niretzat dibertigarriagoa da. Aurreko urtean gauzak oso ondo atera zitzaizkidan binaka eta sailkapeneko 64. postuan amaitu nuen. Gainera, txapelketa desberdinak eta kide desberdinekin irabazi ditut, eta horrek erakusten du jokalaria desberdinekin ondo moldatzen naizela».


NEGOZIOA HANDIA

Tenis txapelketetan, eta, oro har, tenisaren munduan diru asko mugitzen da. Negozio handia dago egituratuta tenisaren inguruan: hedabideetan jarraipen handia duen kirola da, babesleek inbertsio handiak egiten dituzte eta jokalaria izarrak dira. Ondorioz, lorpenak eskuratzen dituzten tenislariak diru kantitate handiak jasotzen dituzte trukean. Hori bai, poltsikoak urrez betetzeko ezinbesteko baldintza da pistetan nabarmentzea. Izan ere, beste kirolari askorekin alderatuta, tenislariak ez dute soldata finkorik izaten, txapelketetan lortutako emaitzen arabera jasotzen dute dirua. Alegia, zenbat eta aurrerago joan eta zenbat eta emaitza hobekien lortu, orduan eta diru gehiago. Aldiz, lehenengo kanporaketetan etxerako bidea hartuz gero, dirua ere gal dezakete, bidaia horietan gastuak izaten dituztelako: hotela, hegazkina, entrenatzailea... Txapelketaren garrantziaren arabera sariak desberdinak dira eta gizon eta emakumeen artean ere bada alderik: «Grand Slameko txapelketetan gizonak eta emakumeak

kumeek kantitate berberak jasotzen ditugu sarrietan, baina gaitzatzeko torneoetan egia da gizonak askoz gehiago irabazten dutela. Txapelketa batean saria kobratzera joan nintzenean gizonak batekin topo egin nuen. Kuriositateagatik elkar galdetu genion ea zenbat irabazi genuen. Jokalari hark 15.000 dolar kobratu zituen lehen kanporaketan etxera joanda, eta, nik, berriz, 2.500 dolar binakako txapelketan lehenengoan kanporatua izanda eta banaka bigarrenengoan. Gizonaren txapelketa zertxobait garrantzitsuagoa zen, baina aldea oso handia da. Enteratu nintzenean asko haserretu nintzen. Hala ere, nik uste dut tenisean ezin garela gehiegi kexatu, ondo ordaindutako kirola da-eta».

Halaber, babesleek ere diru laguntzak ematen dizkiete. Larak, esaterako, Babolat markako erraketak erabiltzen ditu. Erabiltzen duen arropa, berriz, Lotto markakoa da. Publizitateak ere dirua lortzen dute tenislariak, batez ere rankingean aurreneko postuetan daudenean. Baina baita euren fisikoagatik nabarmentzen direnak ere. Izan ere, beste hainbat kirolatan gertatzen den moduan, zenbait iragarkitan kirolariora baino garrantzi handiago ematen diote kirolarien itxurari. «Normalean jokalaria onenak ateratzen dituzte publizitatean, baina ez beti. Bi jokalarik marka bera badute eta bat rankingaren 10. postuan badago eta bestea 25. lekuan baina ederragoa bada, azken hori aterako da argazkietan», kontatu du. Berri ordea, oraindik ez omen zaio horrelakorik gertatu. Kontu horiek aparte utzita, Arruabarrenak tenisa gozatzen eta aurrerapausoak ematen jarraitu nahi du. Agian laster marka nagusien erreferente moduan ikusiko du, nork daki! •

Mikel IBARGOIE



GUREGIPUZKOA.NET

TXIMISTAK ANDOAINGO KANPANDORREA JO ZUENEKOA

Halaxe gertatu zen, 1928. urtean. Tximistak jota Andoaingo kanpandorreko kanpaia goitik behera erori zen. Eta, bistan denez, ez zen txantxetako kanpaiaren tamaina. Urtea kanpaiei begira bukatzeko eta hasteko ohitura dagoenez, argazki eder haxe ekarri dugu asteon. Bitxia ere bada urtearen hondarretan denboraren joanaren kontzientzia hartu nahian aritzea, ordurako alferrik zenbat denbora joan zaigun ikusita.... **Pascual MARIN. MARIN FUNTSA. KUTXA FOTOTEKA**

Ezberdinak/berdinak gattunk?

Xabier Mikel Errekondo

Gattunk”, datorren urriaren 4an Usurbilen ospatuko den Kilometroak 2015 jaiko lema berritzailea da. Hurbilekoa, eskualdeko hita-noa bezainbeste. Parekidea, genero biak biltzen dituena; “gattun” eta “gattuk”. Bertakoa, gurea, txalapartaren ttun eta ttun artean erakartzen zein elkartzen eta gihartzen gaituena. Bizia, beraz ekintzailea. Harrigarria da ehunka herritar elkartu eta norabide berean ekitetik zenbat proposamen berritzaile sor daitekeen. Horixe izaten ari da Usurbilgo KMK15 taldeen miraria. Kilometroak ekimenak barnebiltzen dituen baloreek bizirik diraute laugarren hamarkada izanagatik ere. Elkar harturik erronkei aurre egitekoa. Oraingoan tokiko beharra Usurbilgo ikas-

tola bada ere, konponbidea Gipuzkoako jendartearen ekarpenetik ematearen izpiritua sasoiko dago. Oinarrian, gipuzkoarrena ere baden beharra nahi eta ahalegin bilakatzen baita.

Datorren Kilometroak Udarregi ikastolaren eraikin berria ordaintzera bideratuko da. Hazten ari den herriaren hezkuntza beharrei erantzuteko. Nolako herria nahi dugunari. Poztekoa. Gipuzkoar asko bezala, usurbildarrok aitzindariak izan gara hainbat erronken aurrean, nola hondakinen arazoari konponbidea ematen. Bada KMK15 plaza eta dema paregabea dugu herri jasangarri, parekide eta inklusiboa erakitzeke eta proiektu aitzindariekin brankara egingo dugu. Jendarte inklusiboa eraikitzeaz hitz bi harilkatu nahi nituzke:

zu eta ni ezberdinak gara. Izan haur, gazte, heldu, emakume ala gizon, jatorri bateko zein besteko, itsu, gor-mutu, elbarri edo menpeko. Zuek, elbarri eta menpeko gure gizartera “integratzeko” ahalegina okerra da. Irauli egin behar dugu pentsaera hori eta jendartearen eraldatu bera bihurtzeko inklusibo, kolektibitatekin norbanakoon ezaugarri bereizgarriak, eta zenbaitetan mugatzaile eta bazter-tzaileak, gaitzizteko. Gizarte inklusibo berdina.

Ikasteko, berritzeko gaude. Aukera ezin hobea dugu Kilometroaren plaza. Horretara ere bagoaz Usurbilen 2015ean. Urtebete ez dugu arazoa guztiz konponduko, baina Gipuzkoari ekarpen tinkoa egiteko prest dago KMK15.. •

Iratxe Esnaola
Informatika ingeniaria

Teknologia eta kontsumismoa

Ulertzerak eman nahi izaten digute kontsumoa dela, edota izan behar duela, sistema ekonomikoaren motorra. Eta beraz, ez garela langileak, kontsumistak baizik. Jendarte-klaseen inguruan dugun pertzepzioa ere aldatu digute. Non denok dugun oporretarako eskubidea. Eta gero eta urrutiago joan, hobe. Non denok dugun telefono mugikorra. Are, smartphonea, gero eta pantaila handiagoekin eta prestazio sinestekin. Gero eta azkarrago aldatzen dugu smartphonea, gero eta lehenago aspertzen gara dugunarekin.

Nolabait, esan daiteke zerbait zaharkitua gelditzearen sentsazioa areagotu duela teknologiararen jendarteratzeak. Azken teknologia eskuratzearren beharraz edota plazeraz hitz egiten ziguten, eta digute, etengabe. Smartphonea urtean behin aldatzeaz, berritze-plan tentagarriak eskainita. 40 megapixeleko kamera integratua duten smartphoneak saltzen dizkigute jada. Garapenaren azkartasunari ezin eutsian ibiliko bagina bezala sentiarazten gaituzte. Beti atzetik, baina beti kontsumitzen, erritmoa gehiegi galdu gabe. Etengabeko zurrumbilo kontsumista da teknologiena ere. Teknologiena batez ere, esango nuke. Eta Gabonen erdian gauden honetan, aurtun ere, maitasun eta estimu gutunak izan beharrean, opari asko eta asko gailu elektronikoak izango dira (ikustekoa da gai hori lantzen duen IKEAren Gabonetako aurtengo iragarkia).

«Berria dena, berria izate hutsagatik, zaharra baino hobea dela sinestarazten digute», dio Pablo Sastrek “Gauzen presentzia” liburuan. Eta kalitate terminoetan, gero eta produktu eskasagoak ekoizten diren garaiotan, zerbait erostek plazerak ematen duela dirudi. Hau paradoxa. Zerbait berria eskuratzek gozamen sortzen du. Eta zerbait berria erostek sentsazio positiboa sorraraztea bilatzen du sistemak. Eta behin sentsazioa sortuta, pertsona, pertsona baino gehiago, kontsumista da jada.

Kontsumoaren ekonomia horretan, oinarrian eta aplikazioan kokatzen da teknologia.

Teknologien bitartez, produktuen ekoizpena azkartu egin da. Baina azkartzeak ez du kalitatea bere baitan biltzen. Kontsumismoaren gorpila mantentzeko, ezinbestekoa da produktuek, izan teknologikoak edo ez, iraungitze data ez oso urruna izatea. Bi urte dituen smartphone bat zaharra da jada. Teknologia, beraz, ekoizpen prozesuak aldatuz, kontsumismoa jendartearen funtzionatzeko modu bilakatzeko tresna eraginkorrak izan dira.

Bestalde, ordea, kontsumismoa produktu teknologikoei erabat lotua dagoen jarrera da. Jarrera baita. Sistemak kontsumitzea normala dela sinestarazten digu. Are gehiago, ona dela, osasuntsua. Baina egungo sistemaren defendatzaileek “gehiagizko kontsumoa” ere definitzen dute, eta hori da “kontsumo patologiko” gisa jotzen dutena. Modu horretan, barruraino sartuko digute kontsumitzea ekintza arrun-

ta, ohikoa eta sana dela. Arrunta ez dena eta okertzat jo daitekeen kontsumoa, patologikoa delako. Eta noski, “kontsumo patologikoa” kontzeptua muturreko kasuetan soilik aplikatzen dute. Gai nontzeko guztiak, kontsumista normalak gara. Sistemak behar dituen kontsumistak, sistema bera bere horretan mantentzeko.

Hori horrela, teknologien kontsumoari ere neurria hartu behar zaio. Teknologia tresnatzat hartu behar ditugu. Abiadura handiko garapenaren duen sektorea da, baina guk gure erabilpen beharren erritmoari eutsi behar diogu.

Teknologiez harago, kontsumismoak ezin du sistema ekonomiko iraunkor eta jasangarri baten motorra izan. Eta jarrera hori, izaera kontsumista horren barneratze hori, kontrolatzea ezinbestekoa da, beste sistema ekonomiko bidezkoago batean sinesten badugu. •



Etengabeko zurrumbilo kontsumista da teknologiena ere.

Jon HERNÁEZ | ARGAZKI PRESS

arkitektura/ zientzia / teknologia

3 BEGIRADA:



niceconcerts

Urtarrilaren 7an, asteazkena

Berri Txarrak

22:00etan www.naiz.eus-en



Kontzertu txikiak on-line

naiz:
kontzertuak



EMAKUMEAK ESKU PILOTAN

Iraganean salbuespen, egun, aldapa zelaitzen eta etorkizuna marrazteke

 **KIROLA** / Mikel IBARGOEN

Astebete da Emakume Cup txapelketako finala Zamudion jokatu zela. Emakume Cup maila nagusian emakumeek jokatu duten esku pilotako lehen lehiaketa izan da, eta, hortaz, zita historikoa izan zen hilaren 6koa. Aurreneko pausoa eman da emakumeek esku pilotan joka dezaketela erakutsi eta duela gutxi utopia zena errealtate bihurtzeko.

Erabateko arrakasta izan zuen finalak. Harmailak bete egin ziren, sekulako giroa egon zen eta partidak ere politak eta orekatuak izan ziren. Ez dago gehiago eskatzerik». Hitz horiekin laburbildu du Iker Amari-ka Bizkaiko Pilota Federazioko presidenteordeak Zamudion jokatu zen Emakume Cup txapelketako finala. Gezurra badirudi

ere emakumeek maila nagusian jokatu duten lehen txapelketa da, eta, egun historikoa izaki, sekulako ikusmina sortu zen finalaren atarian. Emakume kirolariak bigarren edo hirugarren plano batean geratu ohi dira hedabideetan, baina, behingoagatik bada ere, ekimenak sekulako jarraipena izan du. Protagonistak egunkarietako lehen orrietan agertu dira, hainbat irrati eta telebistetan hitz egin dute

Joan de astean Zamudion jokatu zen Emakume Cup txapelketako finala. Giro paregabea burutu da emakumeek maila nagusian jokatu esku pilotako lehen txapelketa ofiziala.
Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

eta denen ahotan izan dira. «Badakigu berez gauza positiboa dela, baina egoerak gainezka egin digu. Gu ez gaude ohituta honetara eta bat-batean horrenbeste dei eta elkarriketa kudeatu behar izatea ez da erraza» azaldu du Ane Baraiazarrek, Txokoan Larrabetzuko Pilota Elkarteko presidenteak.

Emakume Cup txapelketa Bizkaiko Pilota Federazioak bideratu eta bultzatu du. Hori bai, antolatzaileak eurak ere ezustean harrapatu ditu izandako oihartzunak. «Bagenekien ekimen aitzindaria zela, baina ez genuen espero horrelakorik. Federazioan aspalditik mahai gainean genuen proiektua zen; azkenean martxan jarri genuen eta aurrera egin du. Askok ez zuten proiektuan sinesten, esaten zuten pilotan hasitako emakumeek segituan utziko zutela, baina ez da hala izan eta denborak arrazoiak eman digu. Emakumeek sekulako ilusioa agertu dute, gustura dabilta eta hori age-





02/05/2015

HERRIA

REPORTAGE
EMAKUMEA ETA KIROLA

BERDINTASUNAREN PARTIDA OREKATU EZINDA

Emakume kirolarien egoera gaur egungo gizartearen isla baino ez da, non gizonezkoak nagusi baitiren arlorik gehienetan. Emakume kirolarien jarduna gizonenaren itzalpean geratzen da, zenbait kasutan, baita ahanzturan ere. Alabaina, ez da abian jartzen egoera hori iraultzeko mekanismo eraginkorrik, nahiz eta emakumeek sobera meritu egin. Beraz, desoreka horri golik sartu ezinda darraite eta partida berdintzetik oso urrun daude.

MIKEL IBARGOEN

[PRINT](#)
[SEND](#)

Berdintasuna, ekitatea, aurrerapausoak eta antzeko esanahia duten hitzen aldarria egiten da nonahi eta noiznahi 2015 honetan. Kontzeptu horiek egikaritzeko garaia heltzen denean, orde, kontuak oso bestelakoak dira, eta pausu hutsalak, besterik ez da begiztatzen. Alegia, esana eta izana ez doaz eskutik. Hori da, hain zuzen, emakume kirolariekin gertatzen dena. Gizon kirolariekin hedabideetan duten presentziarekin alderatuta, hutsaren hurrengo balira bezala tratatzen dituzte, eta hori agerian uzten du Lakuako Gobernuako Kirol Zuzendaritzak duela bi hilabete pasatxo argitaratu zuen ikerketak. Ikerketa horrek lau astez 10 egunkariren kirol albisteak aztertu zituen eta azaleraturiko emaitzak guztiz ziren argigarriak: kirol albisteetatik %8,56 baino ez dira emakumeen jardunari buruzkoak eta soilik emakumeei buruz aritzen diren berriak ez dira %5era iristen. Ondorengo da Jon Redondoren (Lakuako Kirol Zuzendaria) ondorioa: «Hedabideek ez dute islatzen emakumeek egiten duten kirolaren kalitatea ezta kantitatea ere». Iraia Iturregik (Athleticeko kapitaina) bat egiten du balorazio horrekin: «Penagarria da egoera. Emakumeen kirolak sekulako gorakada izan du azken urteetan baina hedabideetan

Iñaki de Mujika, Onda Vascako kirol zuzendaria: «Berdintasun ezaren errua ez da kirolarena, gizartearena baizik. Berdintasuna dagoen toki bakarra eskelak dira»

Iraia Iturregi: «Hedabide publikoek ez digute behar adina tarte eskaintzen. Azken denboraldietan liga eta kopa irabazteko lehian ibili gara eta ETBk oso partida gutxi eman ditu»

Mikel Olazabal, ETBko kirol zuzendaria: «Guk gizarteak eskatzen duenari erantzun

dugun presentzia ez da hazi neurri berean, eta hori ez da logikoa». Modu berean mintzatu da Ainhoa Azurmedi ere (Psikologoa eta Kirol aholkularia): «Kirola egungo gizartearen isla da eta bertan ikusten da gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak zer-nolakoak diren. Gaur egun batzuek eta besteek dituzten baliabideetan eta presentzian sekulako aldea dago eta horrekin apurtu egin behar da».

Zergatik?

Urtebete atzera ere azterketa berbera egin zuen Gasteizko Gobernuak (astebeteko laginarekin) eta, egiari zor, emakumeen presentzia %3 igo da epe horretan. Dena den, igoera ez da nahikoa inondik ere, eta egoera parekidetasunetik oso urrun dago gaur-gaurkoz. Zentzu horretan, ondorengoak da jende askok egiten duen galdera: zergatik? Alegia, nola da posible XXI. mendean batzuen eta besteen arteko desoreka hain handia izatea? Korapiloa askatzea ez da batere erraza, baina gizon eta emakume kirolariek duten mailaren arteko desberdintasuna eta errentagarritasuna erabiltzen dira argudio nagusitzat. Hau da, hedabideek, negozio iturri diren neurrian, jendearen eskaerei erantzun behar dietela diote hedabideetako ordezkariak eta, zentzu horretan, gizarteak askoz interes handiagoa duela gizonezkoek praktikatzen dituzten kirolen gainean.

Bide hori jarraitu dute Iñaki de Mujikaren (Onda Vascako kirol zuzendaria) azalpenek: «Kontuan hartu behar den lehen gauza da kirolaren eragina gizartean, eta haren eraginkortasuna publizitatean. Hau da, nik saio bat egitean ahalik eta jende gehienak entzutea lortu behar dut saioa errentagarria izan dadin. Gipuzkoako jendeak futbola eta Realak eskatzen du, eta, hori ematen ez badiot, entzuleak galtzen ditut. Nik errespetu handia diet emakumeei, baina beraien eragina oso txikia da. Nik kirol munduan gertatzen den guztia adi jarraitu behar dut, merezi duten tarteak eta balorea eman behar diet emakumeei, baina hori ezinbestean daukagun testuinguruan sartu behar dut. Gustatu edo ez, hori da gure egoera eta errealitate hori ahalik eta orekatuen egiten saiatzen gara, baina ez da erraza. Etekinik lortu beharra izango ez banu, nire saioak beste ikuspuntu batetik landuko nituzke seguruenik, baina...». Halaber, berdintasun ezaren errua ez dela kirolarena dio de Mujikak, baizik eta gizarte osoarena: «Berdintasuna dagoen toki bakararra eskelak dira, hortik aurrera, inon ez».

«Neska politikak ikustera?»

Oscar Badalloren (Marca) ustez, gakoa emakumeen gaineko informazioa kontsumitzeko ohitura faltan dago eta hori da aldatu behar dena. Bestalde, gizartea egungo egoerak eskatzen duenaren oso atzetik dagoela dio, eta eman du horren inguruko adibide esanguratsurik: «Ni askotan joaten naiz Donostiako emakumezkoen partidak ikustera eta ea neska politikak dauden ikustera noan galdetu izan didate. Anoetara joaten diren 5.000 emakumeak futbola ikustera doazela, aldiz, ez du inork ezbaian jartzen. 2015 urtean horrelako komentarioak entzun behar izatea ikaragarria da, eta komentario horiek emakumeek egiten dizkidate askotan, gainera. Horrela zaila da aurrera egitea». Emakumeen kirolaren jarraitzaile izanik, termometro egokia izan daiteke Badallo haien mailaren gainean hausnartzeko, eta berak argi du emakumeek mailarik ez dutenaren argudioa zaharkituta geratu dela: «Gipuzkoan zehazki sekulako maila dugu. Lau talde ditugu kirol desberdinetan lehen mailan: futboleak, Realak; eskubaloian, Bera Bera; saskibaloian, Gipuzkoa EHU; eta, hockeyan, Realak. Eta banako kirolean beste hainbeste. Nik argi daukat emakumeek ikusleak erakartzeko maila dutela. Horretaz jabetzeko, Bera Bera ikustera joatea besterik ez dago. Gizonen indarra izan ez arren, teknikoki maila altua dute eta gauza ikusgarriak egiten dituzte. Futboleak ere aurrerapauso handiak eman dira, baita beste kirolean ere», kontatu du.

Bestalde, Redondok gogorarazi du Londresko Joko Olinpikoetan domina eskuratu zuten euskaldun guztiak emakumezkoak izan zirela eta horrek erakusten duela emakumeen maila zein den. Eli Pinedok (Bera Bera) ere imo defendatzen du tesi hori eta kirola gustatzen zaien pertsonak eta kirolaz ulertzen dutenak horren jakitun direla dio: «Emakumeok badugu maila jendea erakartzeko eta ikuskizuna

bat eman behar diogu. Gizarteak ziaboga bat eskatzen badigu, emango dugu»

«Ikuslea erakartzeko beharra» irizpidea maiz agertzen da. ETBk gizonezkoen 2.B mailako partidak eskaintzen ditu astero; Athletic eta Realak emakumezkoen lehen mailan egonda

emateko. Gure partidak eman dituztenean hori agerian geratu da, jende askok ikusi dituelako. Hala eta guztiz ere, oso gutxitan ematen dituzte eta aukera bat eman behar zaigu egoera aldatzeko».

Hari horri tiraka, Jabi Oterminek (Bera Berako prentsa arduraduna) datu esanguratsua eskaini du: «Gure Kopako finala Teledeportek eman zuen eta 100.000 pertsonak ikusi zuten. Realak egun berean jokatu zuen Sevillaren aurka eta 160.000 ikusle izan zituen. Datuak ikusita eta beste kirola futbola dela eta partida erakargarri bat dela kontuan hartuta, aldea ez zait hain handia iruditzen, nahiz eta futbola ordainpeko kate batean izan. Horrez gain, kontuan hartu behar da gure partida ez zutela ia inon iragarri, eta futbola, berriz, bai. Beraz, emakumeek ere jendea erakar dezaketela argi dago».



Kalitatez informatzea

Zenbakiek eta azterketek erakusten dituzten datu hotz eta kuantitatiboez aparte, badago zer hausnartua aspektu kualitatiboei buruz. Izan ere, gizonen presentzia eguneroko jardunari lotuta dagoela eta emakumezkoena, oster, emaitzei lotuta dagoela kontu jakina den arren, agertzen den informazio urrian ere badago desberdintasunik trataeran. Gizonen gaineko informazioak, oro har, kirol arlori mugatzen dira; emakumezkoen kasuan, bestelako alor batzuei ere erreferentzia egin ohi zaie. Esate baterako, emakume kirolarien gorputzaren erabilera merkantilista egiten da batzuetan. Zentzu horretan, ohikoak dira apaintasuna, feminitatea edo kutsu paternalistako adierazpenak. Horrelako kasuen berri ederki du Azurmendik eta kritika gogorra egiten du jokaera horiek onartezinak direla ozen esanez: «Objektu sexual moduan erabiltzen dira batzuetan emakume kirolariak eta horrekin apurtu egin behar da. Emakumeen edertasunak ez du albiste izan behar eta kalez jantzita ere ez dira agertu behar. Kirolariz jantzita agertzea garrantzitsua da erreferente moduan agertzeko gainerako emakumeentzat». Horrelako tratamenduak saiheste aldera, kazetari bakoitzak duen erantzukizuna nabarmendu du: «Genero ikuspegirik ez duen kazetari batek burura etortzen zaion lehen gauza idatziko du emakumeen gainean, ustez berdintasunez tratatzen ari den sentipenarekin. Sentsibiltatea duenak, ordea, desberdintasun egoera batean gaudela dakienez, ez du hanka sartu nahi eta eman beharreko enfokearen gainean hausnartu egiten du».

Beraz, aipaturiko jokaerak ekiditea eta emakumeen kirola hedabideetan kalitatez agertzea ezinbestekoa da, besteak beste, babesleak, ikusleak eta bestelako diru sarrera batzuk erakartzeko, eta, neurri berean, emakume kirolariak profesional bihurtzea lortzeko. Halaber, kalitatez informatzea funtsezkoa da erreferenteak sortzeko. Hori lortuta, errazagoa izango da neskek kirola normaltasunez ikustea, baita, haiengan kirolean jarduteko eta aurrera egiteko nahia eta gosea sortzea ere. Izan ere, ume guztiek izaten dute petsonaren bat ispilu moduan eta kirola gustuko duten neska gazteek emakume kirolari erreferenteak izatea garrantzitsua da, haiek ere beraien ametsak

gauza ditzaketela ikus dezaten. Arreta berezia eskaintzen dio Redondok puntu horri: «Erreferenteak dauden heinean, emakumeen presentzia handigoa da bai hedabideetan, baita horiek ikustera joaten den ikusle kopurua ere. Eta neska gazteentzat hori ezinbestekoa da».

Iturregirentzat ere erreferenteena oinarri-oinarrizko kontu bat da, eta, ondorioz, tentuz landu behar dena: «Gazteak garenean beti izan nahi dugu Aduriz edo Gurpegi, eta beraiek iritsi diren lekura iritsi. Neska txikiek, berriz, oso zail dute emakumezko erreferenteak edukitzea, oso gutxi agertzen garelako, eta hori oso garrantzitsua da haiek ere ikusteko Athleticeen joka dezaketela eta profesionalak izan daitezkeela».

Oraindik ere urrats asko emateke dauden arren, Pinedok nabaritzen du aldaketa bat, eta, pixkanaka, egoera gero eta hobea eta orekatuagoa izango dela sinestuta dago: «Londresko Joko Olinpikoak jokatu nituenetik partida askotan geratu behar izaten dut jendearekin argazkiak ateratzera, eta gutxinaka emakume erreferenteak sortzen ari dira eskubaloian behintzat. Beraz, aurrerantz goazela esango nuke eta hori oso garrantzitsua da. Nik gaztaroan ez nuen emakumezko erreferenterik».

Informazioa saltzeko zailtasunak

Kazetaritzaren ohiko funtzionamenduari jarraituz, gizon kirolarien informazioaren atzetik joaten dira kazetariak, baina emakumezkoen kasuan, berriz, alderantzizkoa gertatzen da, zita garrantzitsu batzuk (finalak...) aparte utzita: «Beste batzuek kazetariak atzetik ibiltzen dituzte eta albisteak ez dagoen tokitik ere albisteak sortzen dute. Hori, ordea, ez da gure kasua. Gu gara edukiak sortzen ditugunak. Saiatzen gara kandela pizturik mantentzen, baina ez da erraza», azaldu du Oterminek. Errealitate horren jakitun, hedabideetan tartea lortzeko argi dauka bestelako erraztasun batzuk eman behar dituztela, eta bide horretan gauza asko hartu behar dituzte kontuan puzzlea osatu eta helburua lortzeko: «Adibidez, prentsaurreko bat antolatzeko besteek aintzat hartzen ez dituzten gauza batzuk kontuan hartu behar ditugu eguna eta orduak zehazteko garaian; izan ere, gizonezkoen futbola eta saskibaloiarekin batera jarriz gero, lekua egitea oso zaila da».



Hedabide publikoen erantzukizuna

Hedabide guztiek izan beharko lukete ardura eta sentsibilizaio handiagoa gai honen inguruan, baina zalantzarik ez da hedabide publikoen erantzukizuna are nabarmenagoa dela, haiek emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eskaintzeko beteharra dute eta. Eusko Jaurlaritzak gauzatutako ikerketak egunkariak soilik aztertu zituen arren, Jon Redondo seguru dago ikerketa ikus-entzunezko hedabideetan egin izan balute, emaitza berbera izango zela, baita EITB kontuan hartuta ere. Gauzak horrela, EITBri gehiago eskatu

behar zaiola aitortzen du: «Zerbitzu publiko bat izanik, erantzukizun handiagoa du. EITBk gehiago bultzatu beharko luke emakumeen kirola ikusle kopuruei horrenbesteko jaramonik egin gabe».

Oraindik ere zorrotzagoa izan da Azurmendiren kritika: «Lotsagarria da. Hedabide publikoetan ezin da horrelakorik onartu. Hedabide publikoek konpromiso morala eta soziala dute, baita legala ere. EAEko legediak gizonen eta emakumeen presentziak orekatua izan behar duela dio, eta, hori hala izan dadin, erabakitze guneetan pausuak eman behar dira hori bermatzeko. Arazoa da berdintasun legea betetzen ez bada, ez dela ezer pasatzen, eta hori ezin da horrela izan».

Mikel Olazabalek (ETBko kiroletako zuzendaria) eta Txetxu Urbietak (Euskadi Irratiko kiroletako zuzendaria) argi dute, hedabide publikoen gidari diren heinean, hedabide pribatuak ez bezalako betebeharrak dituztela eta horiei erantzuten saiatzen direla diote. «Nik uste dut EITBk lan ona egiten duela eta sentsibilizazio handia dugula emakume kirolariekiko. Egia da gehiago egin daitekeela, baina bide egokia daramagula esango nuke», zehaztu du Urbietak.

Ez da hori, ordea, Iturregik eta Pinedok duten sentsazioa: «Bertako hedabide publikoek ez digute behar adinako tarterik eskaintzen. Azken denboraldietan beti egon gara liga eta kopa irabazteko borrokan eta ETBk oso partida gutxi eman ditu, urtean behin edo, eta hor erakundeek esku hartu beharko lukete. Informatiboetan ere berdin. Txapelketak irabazi dituzten emakume piloak dugu, eta agertzen badira, 10 segundo eta kito. Hala ere, egia da Euskadi Irratitik astero deitzen digutela, baina ez du hedadura bera eta telebistan agertzea ezinbestekoa da», azaldu du Iturregik.

Pinedoren iritzia ere antzekoa da: «ETBn apenas egiten diguten erreferentziarik albistegietan, eta gure partida oso gutxi ematen dituzte. Esaterako, iragan urtean, Txapelaldun Liga jokatu genuen eta gure klubak ordaindu egin behar izan zuen, partida ETBn emateko. Diru gutxi daukagu eta gainera telebistan emateko ordaindu egin behar dugu, ez du zentzurik».

«Gizarteak eskatzen duena»

Olazabalek onartzen du orekarik ez dagoela, nahiz eta emakumeen presentzia gero eta handiagoa dela nabarmendu: «Guk gizarteak eskatzen duenari erantzun bat eman nahi diogu eta gizartea emakumeek eta gizonak osatzen dugu. Beraz, gizarteak zia boga bat eskatzen badigu, emango dugu. Hala ere, zuk saio bat egiten baduzu eta inork ikusten ez badu, kendu edo aldatu egin beharko duzu, eta gauza horiek ere kontuan eduki behar dira». Emakumeek ETBn duten presentziaren inguruan ere datu batzuk eman ditu: «Guk, telebista pribatuarekin alderatuta, arreta handiagoa eskaintzen diegu emakumeei: urtean 800 bat albiste informatiboetan, 45 emanaldi zuzenean edo diferituan eta, Zu kirolari saioan, 75 erreportaje inguru. Beraz, estaldura eskaintzen da, baina, gizonen buruzkoekin alderatuta egia da txikia dela». Halaber, gaineratzen du alor publikoak emakume kirolariei hasierako laguntza eta bultzada zor diela, baina, era berean, beste irizpide batzuk ere kontuan hartu behar dituztela, eta ikuslea erakartzeko beharra ere mahai gainean jarri du. Irizpide hori argi azaleratzen da, esate baterako, futboleko. Izan ere, astero 2.B mailako partidak eskaintzen dituzte, emakumezkoen lehen mailan bi talde (Athletic eta Real) izanda.

Euskadi Irratira bueltatuta, Urbietak ez du uste, futbola aparte utzita, desoreka oso nabarmena denik. Hala ere, bat egiten du Olazabalen hausnarketa batzuekin: «Banakako kiroletan lorpenak eskuratzen dituzten kirolariei tarte bera eskaintzen diegu, gizon edo emakume izan. Nor ageri da gehiago atletismoan Naroa Agirre edo Mikel Odriozola? Eta, piraguismoan, Maialen Chourraut edo Ander Eloze? Hori zailagoa da taldekako kiroletan. Realaren gizona eta emakumezko taldeei jarraipen berdina egin behar zaie Anoeta betetzen denean eta Zubietara 200 pertsona joaten direnean? Bai, emakumeei lagundu egin behar zaie, baina gauza horiek ere kontuan hartuta. Komunikabide publikoak emakumeei tarte eskaini behar

diegu eta babestu egin behar ditugu, baina kontuan hartu behar dugu entzule batzuentzat ari garela lanean eta irizpide hori edukitzea logikoa dela uste dut. Guk saioa areto futboleko neskei buruz hitz eginez bat irekitzen badugu, hurrengo egunean zenbat pertsonen entzungo gaituzte? Ba, seguruenik, askoz gutxiagok, eta, gustatu edo ez, hori da daukaguna».



Benetako apostu baten beharra

Hauxe da egungo errealitatearen argazkia; alderantzikatzea gizarte osoaren eskutik etorri behar da. Hori gauzatu dadin, ezinbesteko baldintzak dira nahia, gogoia eta sentsibilizazioa: «Aldaketa ez da bere horretan gertatuko, aldaketa eragin egin behar da, aldaketa proposamen global batez bidez. Horretarako, berdintasunari buruz egin behar dugu gogoia, horretara iristeko egin beharrekoak zehaztuta», dio Azurmendik.

Bide horretan, hausnarketa gizarte osoarena izan behar da. Izan ere, oraindik asko dago egiteke. Honako adibide hau aipatzen du Redondok: «Astebukaera batean gertatu zen ostiral batean Realaren liga partida izatea, eta larunbatean Bera Berak Europako txapelketa. Anoetara 25.000 pertsona joan ziren behar zena ordainduz, eta Bera Berako partidara (5 euro kostata) 300 pertsona. Beraz, hedabideen jarreraz gain, gauza asko aldatu behar dira eta, horretarako, gutariko bakoitzak eman behar du urrats bat».

Badalok, berriz, beste hau jarri du mahai gainean: «Nik beti salatzen dut emakumeen kirola jarraitzen ez duten lehenengoak emakumeak eurak direla eta eurei dagokie lehen bultzada ematea. Realaren bazkideetatik 5.000 inguru emakumezkoak dira, baina ez dira Zubietara joaten emakumeen partidak ikustera. Kirola praktikatzeko duen emakume mardoa dago, baina haiek ere ez dituzte beste emakumezkoak ikusten eta hori da arazoaren muinetako bat».

Hedabideen bultzada eta hauspoa ere oso garrantzitsua da, baina, oraingoan, "Infozazpi" irratia baino ez du izan benetako apostu bat egiteko ausardia. Bertan, astelehenero ematen dute Kirol Leihoa, oso osorik Euskal Herriko emakume kirolariei eskainia: «Berdintasunik ez dagoenez, beharrezkoa da Kirol Leihoa bezalako saio bat eta erabat justifikatuta dago. Diskriminazio positiboko ekintza bat da, hain zuzen, berdintasuna lortzea helburu duena. Hobe litzateke horrelakorik behar ez izatea, baina tamalez hori ez da egoera», azaldu du Azurmendik. Iritzi berekoak dira Iturregi, Pinedo eta Redondo.

Gauzak horrela, norabide horretan lan egitea ezinbestekoa da distantzia murrizten joateko, eta hedabide indartsu batek benetako apostu sendo bat egitea mugarri izan liteke: «Aintzane Encinas (Reala) 'Marca'n astero zutabe bat idazten hasi zenean 'Onda Cero' eta 'Radio San Sebastian' ere astero Realeko jokalaria bat elkarriketatzen hasi ziren, eta Encinasek idazteari utzi zionean, besteek ere tarte hori kendu zuten», kontatu du Badalok.

Beraz, litekeena da, apustua egin eta jarraipena emanaz gero fruituak ematea, eta gainontzekoek, neurri batean, behintzat, horri jarraitzea. Hori bai, apustua benetakoa eta konbentzimenduz egindakoa izan behar da, estrategia eta helburua ondo zehaztuta. Baina, egin, egin behar da.



2015/01/31

ERRITARRAK

ELI SARASOLA
AEB-ETAN ATEZAIN

Atezain donostiarren ibilbidea oparoa bezain mugitua izan da, 23 urte bakarrik izan arren. Realean hasi, Bartzelonako loraldia bizi eta Ameriketako Estatu Batuetan da orain.

«Nire hurrengo helburua Estatu Batuetako liga profesionalean jokatzeari da»

MIKEL IBARGOEN

INPRIMATU

BIDALI



«Estatu Batuetan emakume futbolari inguruan sortu den zurrumbiloa ikaragarria da. Gizonezkoenak baino jarraipen handiagoa du

IBILBIDEA
Donostian jaio zen, 1991. urtean.
Amara Berri taldean eta Añorgan eman zizkion bere lehenengo ostikoak

Eli Sarasolak (Donostia, 1991) bere auzoko Amara Berri taldean eman zizkion lehenengo ostikoak baloi bati. Ostikada horiek gola sartzea zuten helburu, aurrelari moduan jokatu baitzuen bere hastapenetan. Egun, ordea, bere eginkizuna guztiz kontrakoa da, aurkariei golak sartzea ekiditea, hain zuen ere. Teknikariaren gomendioz, atepaan probatzea erabaki zuen, nahiz eta hasiera batean aspergarria iruditzen zitzaion. Ordutik hona, hala ere, gauzak dezente aldatu dira. Orain, atezainarena posturik politena iruditzen zaio eta bistan da erabakiarekin bete-betean asmatu zuela, bere ibilbidea ikusita.

Estreinako esperientzia serioa Realean izan zuen. Aukera hori, gainera, oso gazte zela iritsi zitzaion, 16 urterekin. Erakutsitako maila ikaragarriak Bartzelonaren deia jasotzeko balio izan zion. Katalunian hiru urte egin zituen eta liga irabaztea lortu zuten, historian lehenengoz. Orduan heldu zitzaion berriro ere mailetak egiteko unea. Charlestoneko Unibertsitateak –Ameriketako Estatu Batuak– ikasketak eta futbola uztartzeko beka oso bat eskainita, amets amerikarra bizitzera joatea erabaki zuen, Bartzelonarekin Txapeldunen Liga jokatzeari muzin eginda.

Ez da damutzen harturiko erabakiaz. Orain, Estatu Batuetako liga profesionalean (munduko onena da) jokatzeari du helburu.

Gaur egun, goi mailako atezaina zara, baina zure hastapenetan jokalaria moduan jokatzen zenuen.

Halaxe da. Ikastolan mutilekin jokatzen hasi nintzenean, aurrelari moduan jokatzen nuen. Gero, pixkanaka, nire posizioa atzeratuz joan ziren. Añorgan erdiko atzelari moduan jokatu nuen eta, azkenean, atezain bezala amaitu dut.

Zer dela eta aldaketa hori? Zuk erabaki zenuen edo teknikariaren batek gomendatu zizun?

baloia, 16 urterekin Realak fitxatu zuen arte. Maletak egin eta Bartzelona izan zuen lehen helmuga. Hiru urte eta hamaika garaipen ostean, Estatu Batuetara joan zen eta bertan jarraitzen du ordutik.

Gomendatu egin zidaten, baina niri hasieran ez zitzaidan batere gustatu ideia. Niri golak sartzea gustatzen zitzaidan eta atepean egotea, berriz, aspergarria iruditzen zitzaidan.

Beraz, hasieran ez zenuen begi onez hartu.

Ez, ez! Partidak jokatzeko genituen eta atezain moduan jartzen nindutenean haserretu egiten nintzen [barre egin du]. Baina, azkenean, urtebetez probatzea hitzartu nuen nire teknikariek, maila ona eman nuen, gustura aritu nintzen, eta jarraitzea erabaki nuen.

Egin duzun ibilbidea gainbegiratzea besterik ez dago erabaki zuzena izan zela ikusteko.

Hala da. Ez naiz damutzen inondik ere. Orain, gainera, ikaragarri gozatzen dut atezain moduan eta futboleko posturik politena dela iruditzen zait. Zenbat aldatu diren gauzak.

Atezainek izaten duten arazo nagusietakoa baloia hankekin behar bezala erabiltzea izaten da, eta pentsatzen dut zure lehenengo pausoak jokalaritza moduan eman izanak asko lagunduko zizula ildo horretan.

Bai, noski! Atezain moduan hasi nintzenean, arlo hori nahiko ondo menperatzen nuen. Gainera, azken urteetan erdiko atzelari moduan jokatu izanaren ondorioz, banekien defentsak nola funtzionatzen zuen eta taldearen jokoa kontrolatzera ohituta nengo.

Futbol munduan, lehenengo urratsak Amara Berrin egin zenituen, ondoren, Añorgan, eta 16 urterekin Realak fitxatu zintuen. Espero al zenuen lehen esperientzia profesionala hain goiz izatea?

Ez nuen inoiz pentsatu horrelako pausorik ematea. Nire betiko ametsa zen emakumezkoen maila gorenean jokatzeko eta futbolari profesionala (emakumeek oso zail dute eta kirola egitetik bizitzea) izatea, baina ez nuen uste aukera hori iritsiko zenik eta are gutxiago 16 urte besterik ez nituen. Baina iritsi zen, eta modu horretan, nire ametsetako bat errealitate bihurtu zen.

**Nola egokitu zinen talde eta maila berrira?**

Nire lehenengo urtean Añorgan utzita jokatu nuen, oso gaztea nintzelako, nahiz eta Realarekin entrenatzen nuen. Jauzi hori pixkana ematea lagungarria izan zen niretzat. Izan ere, Realean zegoen mailara egokitzen joan nintzen, eta, gainera, Añorgarekin minutuak pilatu nituen.

Baina argi dago segituan irabazi zenuela teknikari zuri-urдинen konfiantza. Izan ere, 17 urterekin hasierako hamaika-koan aurkitu zenuen lekua.

Ni apaltasunez maila hobetzen eta gorantz joaten saiatu nintzen, eta, zorionez, lan horrek fruituak eman zituen.

Fruituak eman zituen eta ez edonolakoak; denboraldi horren amaieran Bartzelonaren deia jaso zenuen. Ez zen erabaki erraza izango, ezta?

Erabaki hori hartzeko orduan ikasketek pisu handia izan zuten. Nik fisioterapia ikasi nahi nuen eta hara joateak ikasketa horiek futbolarekin uztartzeko aukera eskaintzen zidan. Gurasoek ere ulertzen zuten niretzat aukera paregabea zela, bai ikasketen ikuspegitik bai kirol ikuspegitik, eta babes osoa eman zidaten.

Nolakoak izan ziren Bartzelonako lehenengo hilabeteak?

Egia esan, primeran egokitu nintzen bizimodu berrira. Bertan Espainiako selekzioko azpiko mailetan taldekide izandako jokalariek batzuk zeuden eta horrek asko erraztu zidan bidea. Hala ere, familia eta lagunak faltan botatzen nituen. Bartzelonara abuztuan joan nintzen, denboraldi-aurrea egitera, eta, irailean, libre izan nuen lehenengo asteburuan, Donostiara itzuli nintzen.

Egokitzea samurra izan arren, zure bizitza erabat aldatuko zen: talde berria, hiri berria, etxetik kanpo bizitzea...

Aldaketa handia izan zen. Nire gurasoen etxean bizitzetik lagunekin etxe batean bizitzera eta soldata bat izatera pasatu nintzen, egun batetik bestera. Bestalde, unibertsitatera joaten hasi nintzen, eta, beraz, gauza pila bat aldatu ziren bat-batean nire bizitzan.

Momentu horietan, burua bere lekuan izatea ezinbestekoa izango zen.

Bai. Hasieran ez da erraza. Lagunekin bizita, nahi duguna egiteko askatasun osoa dugu eta gehiago ateratzen gara. Ez naiz parrandari buruz soilik ari, baizik eta afaltzera eta bazkaltzera kanpora joateaz... Neurri berean, bizitza erritmoa aldatzen hasten da, eta, beraz, beharrezkoa da hausnarketa bat egitea eta bertara ikastera eta futboleko jokatzera joan garelako argi edukitzea.

Kirol arloari dagokionez, desberdintasun handiak sumatu al zenituen Realaren eta Bartzelonaren artean?

Ni iritsi nintzenean, Bartzelona ez zen egungo Bartzelona ahalguztiduna. Xavi Llorensek –Bartzelonako entrenatzailea– talde lehiakor bat eraikitzeko asmoa zuen, hurrengo urteetan tituluak eskuratzen hasteko, baina momentu hartan ez zegoen desberdintasun nabarmenik Realaren eta Bartzelonaren artean.

Beraz, Bartzelonako emakumezkoen taldearen loraldia hasi zen unean iritsi zinen

Bai. Ni iritsi nintzen urtean, taldea guztiz eraberritu zuten eta jokalaririk berri pila bat iritsi ginen. Urte horretan, Kataluniako Kopa irabazi genuen, Espanyolen aurka, Bartzelonaren historian estreinakoz. Hurrengo urtean, Erreginaren Kopa eraman genuen eta hirugarren denboraldian ligako txapeldunak izan ginen. Hiru urte horietan, taldea ikaragarri hazi zen.

Futboleko emakumeen eta gizonezkoen artean alde oso handia dago oraindik, zentzu guztietan. Bartzelonan zer desberdintasun zeuden gizonezkoen eta emakumezkoen taldeen artean?

Desberdintasun asko zeuden. Nire lehenengo urtean, esaterako, guk ez genuen entrenatzen Bartzelonaren kirol hirian, Hospitaletako futbol zelai batzuetan baizik. Bigarren urtean, kirol hirian entrenatzen hasi ginen, baina belar artifizialeko zelaiak uzten zizkiguten eta gizonezkoen jubenil mailako taldeak, berriz, egunero, belar naturalean egiten zituen lansaioak.

Ordutik hona, egoera aldatu da?

Bai. Pixkanaka gauzak hobetuz doaz. Guk lehenengo txapelketa irabazi genuenean, lorpena ospatzera zelaira ateratzen utzi ziguten, gizonetako lehenengo taldeak jokatzeko partida batean, eta apurka-apurka gauzak aldatuz doaz eta arreta handiagoa eskaintzen digute. Egia da prozesua geldoa eta nekeza dela, baina Bartzelonaren kasuan, zehazki, klubak baloratu eta saritu egiten ditu emakumeen lorpenak.

Garai hartan, lehen taldean Messi, Xavi, Iniesta eta enparauak zeuden. Ba al zenuten harremanik haiekin?

Kirol hirian entrenatzen genuenean, kotxeak leku berean aparkatzen genituen eta entrenatzera joaterakoan ere topo egiten genuen, baina harremana ez zen islatzen normaltasun giroan. Guk beraiekin argazkiak ateratzen genituen. Bi kirolariren arteko elkartrukea baino, idolo eta zaletu baten artekoa zirudien hark.

Beraiek nola tratatzen zintuzteten?

Errespetuz. Alde horretatik ez dago inongo aitzakiarik. Guk, gainera –atezainek–, Victor Valdes eta Pintorekin –lehen taldeko atezainak ziren– entrenatzeko aukera izan genuen eta oso adeitsuak ziren gurekin: gauzak nola zihoazkigun galdetzen ziguten eta bazekiten gu saikapeneko lehen postuan gindoazela. Beraz, zentzu horretan bazegoen gertutasuna.

Bartzelonako etapak hiru urte iraun zituen, eta, gero, berriro ere maletak egiteko ordua iritsi zen, baina orduko hartan Estatu Batuetara. Nola sortu zitzaizun aukera hori?

Nik Estatu Batuetako lagun bat nuen Bartzelonan. Betidanik izan dut hara joateko gogo eta berarekin horri buruz hitz egiten nuen. Nire lagunak entrenatzaile dezente ezagutzen zituen eta nire berri eman zien. Garai hartan, guk Japoniako talde baten aurka jokatu behar genuen. Partida hori Youtuben eman zuten, nire egungo unibertsitateko entrenatzaileek ikusi egin zuten, ondoren, hitz egiten aritu ginen eta hara ikasketak egiteko beka oso batekin joateko aukera eskaini zidaten.



Segituan esan al zenuen baietz?

Nik erabakia oso argi nuen. Niri aldaketak gustatzen zaizkit eta gogo ikaragarria nuen. Egia da urte hartan Bartzelonarekin Txapeldunen Liga jokatzeko aukera nuela, baina ezin nion muzin egin Estatu Batuetara joateari.

Zer moduz moldatu zinen ingelesarekin?

First Certificate titulua – B2 maila– aterata nuenez, nire maila nahiko ona zela pentsatzen nuen, baina segituan konturatu nintzen hango beharretarako ez zela nahikoa, eta, ondorioz, lehenengo hilabeteak gogorak izan ziren. Hala ere, pixkanaka ohitu nintzen, eta, gero, primeran.

Eta zuk, han, Charlestoneko Unibertsitatearekin jokatzeko zenuen.

Guk unibertsitateen arteko lehenengo mailako ligan –hiru maila daude– jokatzeko zenuen. Liga hainbat konferentziatan – gertutasunaren arabera– banaturik dago. Konferentzia bakoitzak liga propioa du, eta, amaieran, leku bakoitzeko talde hoberenak haien artean jokatzeko dute. Jendeak hobeto ulertzen du, funtzionamendua NBA-ren antzekoa da.

Nolako maila dago txapelketa horietan?

Konferentzien artean sekulako desberdintasunak daude, baina azken fasea jokatzeko duten taldeen maila Espainiako Ligakoaren antzekoa dela esango nuke.

Hedabideetan jarraipenik egiten dizuete?

Bertako egunkarian astero ateratzen gara, unibertsitateko Interneteko atarian ere informazioa dago, elkarriketak egiten dizkigute eta partida guztiak Internet bidez ikusteko aukera dago. Estatu Batuetan inbertsio handia egiten da unibertsitateen arteko ligetan eta garrantzi eta jarraipen handia dute.

Jokoari dagokionez, ze desberdintasun daude?

Han, fisikoak garrantzi handia du eta askok joko zuzena egiten dute, gola ahalik eta azkarren sartzeko helburuz. Neurri batean Premier League-ren –Ingalaterrako liga– antzekoa dela esango nuke. Dena den, azken urteetan gauzak aldatzen ari dira, Guardiolaen Bartzelonaren eraginaren ondorioz, eta talde asko baloiaren jabetzan oinarritutako jokoa egiten saiatzen dira.

Bestalde, argi dago emakumezkoen futbola indartsuen dagoen herrialdeetako bat Estatu Batuak direla. Alde handia al dago futbolak hemen eta han duen oihartzunaren artean?

Aldea oso handia da. Bartzelona, gaur egun, Europako talderik indartsuenetarikoa da eta bere partidak ikustera 100-200 pertsona inguru joango dira. Eta hemen, berriz, nire taldearekin jokatu nuen lagunarteko partida bat ikustera 1.000 pertsona etorri ziren. Horrez gain, instalazioei eta gure lana egiteko ditugun baliabideei dagokienez ere aldea dago.

Egia al da Estatu Batuetan emakumezkoen futbolak gizonezkoenak baino jarraipen handiagoa duela?

Hori egia borobila da. Gizonezkoen futbola ere pixkanaka gorantz doa eta liga hobetzen ari da, baina ez du zerikusirik emakumezkoenarekin. Hemen, emakume futbolarien inguruan sortu den zurrumbiloa ikaragarria da, batez ere, Estatu Batuetako selekzioaren ingurukoa. Nik Orlandon Brasilgo selekzioaren aurka jokatu zuten lagunarteko partida bat zuzenean ikusteko aukera izan nuen. Partida hura futbol amerikarreko zelai batean jokatu zen –futbolekoek baino edukiera handiagoa dute– eta harmailak beteta zeuden, emakumeak futboleantzat jotzen ikusteko.

Hemen, horrelako egoera bat utopia hutsa da egun.

Lan asko dago egiteko, baina pixkanaka egoera hobetuz goaz. Gu orain dela hamar urte baino askoz hobeto gaude eta seguru nago hamar urte barru egoera oraindik ere hobea izango dela. Hori bai, Estatu Batuetan dagoen mailara noiz iritsiko garen galdetuz gero, ez dut erantzunik. Lanean jarraitu beharra dago.

Zer aldatu behar da berdintasunaren bidean urrats sendoagoak egiteko? Komunikabideetan ematen zaizuen garrantzia, esaterako?

Hori da baldintzetako bat, baina ez da bakarra. Futbol taldeek ere emakumezkoen taldeei garrantzi handiagoa eman behar diete, bestela, jai dago. Bartzelonak, adibidez, emakumeak Txapeldunen Liga jokatzeko sailkatu ziren arte ez zuen inongo propagandarik egin emakumeen inguruan. Bartzelonaren telebistan ere apenas ematen zuten partidarik eta gizonen kasuan, ordea, alebin mailako taldeenak ere emititzen zituzten. Gure taldearen posterrik ere ez zegoen inon, eta horrelako beste makina bat gauza. Gero, gauzak aldatzen hasi ziren. Taldeen bultzada hori ezinbestekoa da, nire iritziz.

Publizitateari dagokionez ere emakume futbolariak hainbat kanpainatan erreferente dira Estatu Batuetan.

Egia da. Estatu Batuetan, zenbait jokalarik diru asko irabazten dute iragarkietan agertzeagatik. Nik esango nuke haien taldeek ordaintzen dietena baino dezente gehiago poltsikoratzen dutela bide horretatik. Eta bertan, emakumeek Espainian baino dezente gehiago irabazten dute.

Estatu Batuetara, ikasteko eta futboleantzat jotzeko beka oso batekin joan zinen. Nola uztatu dituzu bi alorrak?

Estatu Batuetan erraztasun handiak ematen dizkigute. Bertan, student athletes-ak gara. Hau da, lehentasuna ikasketei ematen diete. Haien nahia bakoitzak, lehenik eta behin, ikasketak aurrera ateratzea da. Hala, klaseak eta azterketak lehenesten dira. Antolaketa ere oso ona da. Gure entrenatzaileek irakasleekin hitz egiten dute, kurtso hasieran, gure egutegia azaldu eta galduko ditugun egunen berri emateko eta horren arabera antolatzen dira.

Nahiz eta erraztasunak eman, ez da samurra izango bi alorretan maila ona ematea. Izan ere, biek ala biek, denbora eta dedikazio handia eskatzen dute.

Egia esanda, futbol txapelketa hasten denean ez dugu ezertarako denborarik izaten. Goizetan entrenatzera joaten gara eta arratsaldeetan klaseak izaten ditugu, eta, halaber, etxerako lanak ere egin behar dira. Ostegunetan, gainera, bidaiatu egiten da, ostiralean partida jokatzeko eta igandeetan beste dema bat jokatu ohi da. Exijentzia maila oso altua da eta ez dago aspertzeko betarik.

Hala ere, lan horrek guztiak fruituak eman ditu. Izan ere, karrera amaitu berri duzu.

Hala da, bai. Oso pozik nago. Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietako graduaren antzekoa den karrera batean graduatu naiz.

Eta, behin ikasketak amaituta, non eta nola irudikatzen duzu etorkizuna? Han jarraitzeko asmoa duzu edo itzuli egingo zara?

Momentuz, bertan geratu naiz. Estatu Batuetako liga profesionalean jokatzeko helburua dut. Bertako talderen batean probak egiten saiatuko naiz, otsailean edo martxoan, eta ea zortea dudan. Gainera, orain lanean nabil, kiropraktiko baten kontsultan eta ez dut baztertzeko berrirori unibertsitatara itzuli eta beste karrera bat egitea.